

## Eva Perez-Pons Andrade Lemoako idazleari alkarrizketea

20. orrialdea

## Zeanuriko txistulari taldeak 55 urte ospatuko ditu hilaren 10ean

Ospakizun kontzertuan, Ruper Lekueren zuzendaritzapean, txistulariek eurek, Zeanuriko eta Gasteizko koruek, Esti eta Olatz kantariak, Etzanderak jantza taldeak, Jon Eguskitza trikitilariak, Ander Lekue perkusionistak eta metal boskote batek hartuko dabe parte. **17. orrialdea**



## Etiketa Berdea sortu dabe mendi martxa eta lasterketetarako

19. orrialdea

## Bagilaren 2 eta 3an izango da Areatza Musik & Beer

**P**lazaz gainera, beste espazio bat be egongo da erreka ondoan, blues, jazz eta rock estiloko hamaika musika bandek eskaini dagien kontzertuak. Edgar Blues Trio, La Perra Blanco, Henrik Freischlager, Eric Steckel, Bob Wayne and The Outlaw Carnies, James Room, Basement Saints, Los Retros, Atraco, Komodor eta Koritni dira banda horreek.

Garagardaoari jagokonean, Euskal Herriko garagardao artisauak dastatu ahal izango dira bertan eta jaialdiko eskaintza gastronomikoa Dando la brasak, Mafaldok, Kaitxo txokolateak-ek, Crisla Sweets-ek, Ama Txo gaztaiak eta TXP Txomin Parillak egingo dabe. **8. eta 9. orrialdeak**



## EH Bilduk bost udaletan eta EAJk lautan irabazi dau



Jeltzaleek EH Bilduk baino boto gehiago jaso dabez BEGITUren eremuan, 2019ko hauteskundeetan baino 108 boto gehiago. Lemoa eta Igorre irabazi dauz EAJk. Diman, Zeanurin eta Zeberion, aginte makila EAJtik EH Bildura pasau da eta bost herritan aginduko dau datorren legealdian. Ubiden, Herri Kandidatureak 5 jarlekuak lortu ditu. **16. orrialdea**

## IGORRE

## DIMA

## Igorreko jaietako programea eta nondik norakoak erdiko orrialdeetan

Hamar eguneko jai egitaraua prestatu dabe Igorren herriko jaiak ospatuteko. Jaiak, bagilaren 9an hasi eta 18an amaituko dira. Bitartean, jolasak, lehiaketa gastronomikoak, kuadrillen arteko olinpiadak, pelota partiduak, errugbia, antzerkia eta kontzertuak egongo dira. Huntza, Zirkunik bez, Arene 6, J Martina, Altza Porru, The Arratians, Skabidean,

Trikizio, Karibe Mix, Mumia eta Kilimak taldeek joko dabe, jaietako bariku eta zapatu gauetan. Huntzak eskainiko dauan kontzertua, bere agurrerako birako kontzertuetako bat da.

Arratiako herrietara bueltetako autobusa egongo da 02:30ean eta 05:00etan zapatu bietan. **Erdiko orrialdeak**

## Dimesten eguna ospatuko dabe hilaren 2 eta 3an

Herri hezitzaileen zazpi baloreen inguruan izango da jaiak. Zazpi balore eta zazpi kolore balore horreei lotuta. Horregaitik, Antolatzaileek, koloredun jantziakaz hurreratzeko animau gura dabe jentea.

Herri hezitzaileen jairako, jardura sinbolikoak frontoi txikian, konzentrazinoa, jantza kolektiboa, kantu pintxo poteoa, umeentzako afari-meriendea, Very Txarrak-en kontzertua, eskolako umeen *Lan-datik hirira joanda etorri* pastorala, lorak landatu, artoa garandu eta lokotzak batu, bertso-bazkaria eta Kittu taldearen erromeria dira prestatu dabezan jarduerak. **10. orrialdea**





# Literatura txokoa

## LA LENGUA DE LOS SECRETOS

Martin Abrisketa idazle bizkaitarra lehengo eleberria da *La lengua de los secretos*. Eleberri arina eta irakurteko erraza. Gaia... euskaldunontzat ohikoa dan gaia: Gerra Zibila. Sasoi haretako sufrimentua kontetan dau Martin Abrisketak, baina hainbestetan entzun dogun sufrimentu ha kontetako begi berezi batzuen ikuspegia hartu dau egileak, ume batenak; hain zuzen be Martin Abrisketa nagusiarenak, idazlearen aitarenak.

Gerra sasoioko sufrimentua deskribidu dau egileak, baina ume baten begiradearen gozotasunaz jantzi dau; hain ondo jantzi be, ze sufrimentua ia igarri barik pasetan da narrazinoa. Martin umeak eta neba-arrebek

gurasoengandik urrundu beharra izan dabe gerraren gorabeherak dirala-ta. Deslai ibili dira Bizkaitik Santandererako bidean, eta Santanderren be gorriak ikusi dabez Frantziaraino eroan dituan itsasontzi baten sartu dabezan arte. Luzaroan egon behar izan dabe han, beste errefujiadu batzuk baino gehiago; azkenean ailegau jakie etxera joateko eguna eta gurasoakaz bat egitekoa atzera. Ibilaldi hori guztiori, ume baten ikuspegiak daukan magiaz eta fantasiaz beterik dakargu egileak, eta maisutasunez deskribiduten dauz umeen irudimenetik sortuten diranak.

Liburua idazteko prozesua bera Martin biek, semeak eta aita, alkar hartuteko bidea izan da; aitagana

hurreratzeko ahalegina, egilearen aitortza. Azkenean Martintxo umea atzera joango da hain harrera ona egin eutsen Frantziako herrira, baina ordurako Martin agurea izango da. Amaiera hunkigarria dauka liburuak, euki be.

2015eko liburua da, baina euskaldunontzat gaurkotasunik galduko ez dauan gaia lantzean dauan lez, sano gustura leiduten da.

Rafa Ugalde



**Martin Abrisketa**  
**La lengua de los secretos**  
**Roca editoriala, 2015**  
**528 orrialde**

TELEFONO INTERESGARRIAK

**Larrialdiak**  
Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
SOS DEIAK 112  
**Guardiako farmaziak**  
**09:00etatik 22:00etara**  
**Maiatzaren 29tik bagilaren 4ra**  
Badiola. Artea. Herriko Plaza 7  
Tel.: 94 631 73 11 eta 629 463 048  
**22:00etatik 09:00etara**  
Sarasketa. Amorebieta-Etxano.  
**Bagilaren 5etik 11ra**  
Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1  
Tel.: 94 673 93 95 eta 620 262 937  
**22:00etatik 09:00etara**  
Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.  
**Bagilaren 12tik 18ra**  
Andrea Lavin Abadia. Lemoa. Atutxa Sailburua 1  
Tel.: 94 631 30 18 eta 652 733 820  
**22:00etatik 09:00etara**  
Gutierrez. Amorebieta-Etxano.  
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.  
**Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara**  
Zoco Robles Miren Nekane. Urbi 15. Basauri.

**Medikuak**  
**Arantzazu:** 94 600 74 63  
**Artea:** 94 673 92 11  
**Areatza:** 94 631 71 52  
**Bedia:** 94 631 34 13  
**Dima:** 94 680 19 74  
**Igorre:** 94 600 74 63

**Lemoa:** 94 631 31 16  
**Ubide:** 945 45 03 61  
**Zeanuri:** 94 673 91 49  
**Zeberio:** 94 648 01 85

**Udaletxeak**  
**Arantzazu:** 94 631 56 89  
**Artea:** 94 673 92 05  
**Areatza:** 94 673 90 10  
**Bedia:** 94 631 42 00  
**Dima:** 94 631 57 25  
**Igorre:** 94 631 53 84  
**Lemoa:** 94 631 30 05  
**Ubide:** 945 45 03 22  
**Zeanuri:** 94 673 91 46  
**Zeberio:** 94 648 10 79

**Arratiako Udalen Mankomunitatea** 94 631 17 17 / [mankomunitatea.arratia@bizkaia.org](mailto:mankomunitatea.arratia@bizkaia.org)  
**Gorbeialde Landa Garapenerako Alkartea** 94 631 55 25 / [gorbeialde@gorbeialdea.com](mailto:gorbeialde@gorbeialdea.com)  
**Areatzako Parketxea** 94 673 92 79  
**IKE** 94 673 62 51 / [kulturetxea@igorre.net](mailto:kulturetxea@igorre.net)  
**Euskotren** 94 433 33 33 / [euskotren.eus](mailto:euskotren.eus)  
**Areatzako Notariotza** 94 673 92 26  
**Errota Fundazioa** 688 854 543 / [info@erota.eus](mailto:info@erota.eus)  
**Arratiako Musika Eskola** 94 631 73 52 / [www.arratiakomusikaeskola.eu](http://www.arratiakomusikaeskola.eu)

**Bizkaibus 94 612 55 55**  
**3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri**  
**Bilbotik.** Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro. Jaiegunean orduro 07:15etik 22:15era.  
**Zeanuritik.** Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era. Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era. Jaiegunean: 07:45etik 21:45era orduro.  
**3911 Linea. Bilbo-Galdakao Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio**  
**Bilbotik.** Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara orduro. Zapatu eta domeketan Durangoraino.  
**Elorriotik.** Lanegunetan 06:45etik 20:45era orduro.  
**Durangotik.** Lanegunetan: 07:10etik 21:10era orduro. Zapatuetan: 06:30etik 21:30era orduro. Jaiegunean: 07:30etik 21:30era orduro.  
**3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar**  
**Bilbotik.** Lanegunetan: 06:30etik 22:30era orduro. Jaiegunean: 07:30etik 22:30era orduro.  
**Eibartik.** Lanegunetan: 06:00etatik 21:00etara orduro. Zapatuetan: 06:20tik 21:20era orduro.

Jaiegunean: 07:20tik 21:20era orduro.  
**3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide**  
**Bilbotik.** Lanegun, zapatu eta jaiegunean, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro. Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.  
**Ubideetik.** Lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin. Jaiegunean: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.  
\* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.  
**Otxandiotik urtekerak.** Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro. Jaiegunean: 08:55etik 20:55era orduro.  
**3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)**  
**Bilbotik.** Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunean ez dago zerbitzurik.  
**Zeanuritik.** Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta jaiegunean ez dago zerbitzurik.  
**3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao**  
**Zeberiotik Ugaora.** Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10\*, 11:00; 11:45\*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30\*, 20:20. \*Basauriraino bakarrik.  
**Basauritik Zeberiora.** Lanegun eta zapatuetan: 10:00, 12:45\*, 19:20. \*Artearaino bakarrik.

**Ugaotik Zeberiora.** Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.  
**Arteatik Ugaora.** Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00.  
**Ugaotik Artea.** Lanegun eta zapatuetan: 13:05, 15:30, 20:40.  
**Igorretik Ugaora.** Lanegun eta zapatuetan: 07:55ean.  
**Ugaotik Igorrerako.** Lanegun eta zapatuetan: 07:20ean.  
**Zeberiotik Arrigorriagara.** Jaiegunean: 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.  
**Arrigorriagatik Zeberiora.** Jaiegunean: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

**La Union 94 427 11 11**  
**Bilbo-Gasteiz**  
Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urteten dau eta Otxandioakoak 16:00etan. Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Bilbotik. Jaiegunean: Ubidekoak 10:00etan urteten dau eta Otxandioakoak 18:30ean.  
**Gasteiz-Bilbo**  
Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean. Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urteten dau Gasteizetik. Jaiegunean: Ubidekoak 16:30ean urteten dau Gasteizetik.

**Argitaratzailea:** Zertu Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus). **Webgunea:** [www.begitu.eus](http://www.begitu.eus). **Zuzendaria eta publizitate arduraduna:** Iñigo Iruarizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** [inigoirua@begitu.eus](mailto:inigoirua@begitu.eus). **Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** [beazpiri@begitu.eus](mailto:beazpiri@begitu.eus). **Erredakzino arduraduna:** Asier Abrisketa eta Beatriz Azpiri. **Webgunearen arduraduna:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** [asierabrisketa@begitu.eus](mailto:asierabrisketa@begitu.eus). **Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga. **Banaketea:** Garbikuzi enpresa (Dima, Ubide, Zeanuri eta Zeberio), Asier Abrisketa (Igorre), Nerea Beitia (Bedia eta Lemoa) eta Asier Jugo (Arantzazu, Areatza eta Artea). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria. **Twitter:** @BegituEus **Instagram:** @begitu.eus

Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkarteenak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikau, eraldatu daitezke, beti be iturria aitatzu eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatze.

### Babesleak:



ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskertronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratuteko derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea  
BEGITU aldizkaria  
Herriko Plaza 24  
48142 Artea  
Edo, helbide elektroniko honetara bialdu zure gutuna:  
[begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus)

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidera.

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Hitanoagaz hasteko aholkuak (XXVI).  
Kale berbakunea sustatu guran

AURREKO ZENBAKIKO ARIKETEN ERANTZUNAK:

- Jagoten hasi (naz) **nona/nok** eta kirolarien armozuak egiten (dodaz) **jonazat/joazat** oin.
- Bai ala? Eta ze armozetan (dozu) **dona/dok** oin? Txakurren pentsua? Kar, kar, kar.
- Isilik egon (zaitez) **hadi** zantar hori!!
- Goizetan oin orloa hartzean (dot) **jonat/joat** esnetan zopak eginda.
- Eta igarten (dozu) **dona/dok** ezer?
- Ba esango (deutsut) **donat/doat** egun batzuk barru, gaur hasi (naz) **nona/nok** eta... kar, kar, kar.

ERETXIA

El Niño  
fenomenoa

**A**ditu askoren arabera El Niño fenomeno naturalak hainbat eragin sortuko ditu datozan urteetan. Horreen artean; tenperatura orokorrak igotea, itsasoaren maila igotea eta haren bizitza zailtzea, klima gero eta okerragoa izatea, eta uholde zein bero olatuen probabilitadea handitzea izango dira batik bat.

El Niño fenomenoa zer dan ulertzeko modu laburrean definituko deutsuet; Ekialdeko Ozeano Barearen beroketeagaz lotutako gertaera klimatikoa da. Horregaitik, herrialde bakotxean eragin desbardina izan daike. Egoera horren abantaila batzuk izan daitezke: espezie barriak agertzea edo euri asko egitea baina honek ondorioak ekarri leikez. Eta beste desabantaila batzuk be baditu: nekazaritzako lurra galtzea edo espezie askoren migrazinoa.

Gai honen iguruan dakien adituek esaten dabe El Niñok aurten sortuko dituan arazo gehienak hurrengo hileetan eta igual datorren urtean be tenperatura maximo eta minimoen errekorrak erregistratuko dirala.

Hasteko, irakurten zabiziena ez dira barri onak baina hau da daukagun errealidadea. Biztanleriaren zati handienak ez dau ezetuten klimari lotuta dagoan munduko fenomeno meteorologiko hau, ezjakintasun ikaragarria dago eta ez gara konturatuten gure inguruan efektu ikaragarriak sortu leikezala paisaian eta bako-txaren osasunean.

Gaiari jarraituz, arazo larriene-tako bategaz hasiko gara, hau da, uriolak. Arratia bailaran zentrauta iraganera bidaiatuko gara, zehatz 1977ko bagilera. Persona nagusiek gogoratuko dozue zer gertatu zan hilabete horretan.

El Pais egunkariko ondorengo titularra irakurri dot: "1977ko bagilaren 14a. Uholde katastrofikoak Bizkaia eta Gipuzkoan". Egun horretan azken 36 orduetan 130 l/m<sup>2</sup>-ko batu ziran eta inguruko ibaiek gainezka egin



MIKEL UGARRIZA  
BEOBIDE

Meteo Arratia kontuaren  
arduraduna

Kasualidadez aste horretako domekan urte bi bete ziran 1975eko uriola larrietatik. Bizkaia "zonalde katastrofikoak" izentau eben, galerak 2.683 milioi pezetakoak izan ziran eta Arratia zonalde askoren artean kaltetuena izan zan.

Arratia bailaran izan doguzan uriola katastrofikoan gainean berba egin eta gero, El Niño fenomenoak beste zenbait galdera eta duda itxiko deuskuz. Jakingo dozuenez pasau dan uda historiako beroena izan zan, jarraian 3 bero olatu izan genduzan eta Euskal Herrian ohikoak ez diran tenperaturak erregistratu ziran. Baina zelangoa izango da aurten-go uda?

2023 urtea oso txarto hasi dogu beroari lotuta eta momentuz aprila izan da hilabeterik siku eta beroena; maiatzean be Hego Euskal Herrian tenperatura altuak izan doguz eta euri gitxi egin dau.

Udari lotuta adituen arabera, normala baino beroago eta lehorragoa izatea espero da eta egoera honek arazo asko ekarri daikez, esate baterako; gero eta euri gitxiago egiten badau nekazaritza eta abeltzaintza arloan uzta gitxiago batuko da, eta animaliak elikatzea gatxa izango da; gure ingurumenaren kolorea aldatu daiteke eta bero egiten badau sute arriskua handitu ahal da; Euskal Autonomia Erkidegoa muturreko abisuan egoteko probabilitade handian egongo da.

Baso suteei lotuta, honeen %90 gizakiak eraginda dira eta %10 aldiz naturak sortzean ditu; trumoi-ekaitzak edo sumendi erupzioaren eraginez. Pasau dan urtean, Zeanurin eta Zeberion izan ziran suteak, azken honetan 3 aldiz eta zonalde berean gertatu zan, gizakiak eraginda.

Amaitzeko, oin dala urte askotatik existidu dira El Niño eta La Niña fenomenoak baina urteak pasau ahala gero eta erradikagoak izango dira, eta honeri beroaldi globala be gehitu behar jako. Ikusiko dogu zelango uda etorriko dan. Adituek esaten dabenari kasu egin, gure osasunerako hobe izango dalako.

eben hainbat kalte eraginda. Hasi-keran euriagaitik abisu normala jarri eben baina hainbeste euri egin eta gero, uholdeen alarma txoko guztietara zabaldu zan eta katastrofikoak izaten hasi zan.





LUMATUTEN



GONTZAL MENDIBIL

Errespetua

Aspaldi baten esan eus-tan Zeanuriko baserritar jakitun batek: "Zuok gazteok, libertadea gora eta li-bertadea behera zabizie eta be-netako libertadea errespetua-gaz bat joan behar dok". "Hau dok: hik errespetetan banauk ni eta nik hi, horixe dok bizitzaren gauzarik ederrena".

Han jarraitu eban berak, "Gaur ez jauk hemen inongo errespeturik, beitiok, gazteak zelan jabizeken! eurek dozak jakitun, eurek jeukiek errazoaia, eta txarragoa dokena, gulan-goengandik ez jaurek ezer entzun gura, traste zahar batzuk baino ez gozak". Besteei entzu-tea dalakoan nago irakasgairik onena eta han isilean eta neure pozean nengoan entzun eta entzun.

Entzuten ikasten da eta en-tzundakoa hausnartzen, hori esaten eben antxinako gizaki jakintsuak eta horixe bera esan eustan gure baserritar jakin-tsuak. Bakotxak bere errazoiak

sartu guran eta, sarriegitan, besteen eretxi edo errazoi-entzungor egiten deutsegu, hau guztiau esatean, ez dakit filoso-fetan ez ete nabilen eta honen harira gogoan dot Bilboko San Antongo eleizako Don Klaudio parrokoak bere sermoia eus-keraz bota ebalu eta hara non hurreratu jakon ijito bat; Don Klaudiok euskeraz erantzun ei eutsan, eta ijitoak "ioiga feo, que yo no sé filosofía eh!".

Halan be, gure baserritar ja-kintsu horrek ez eban ezer libu-ruetatik ikasi, ez eukan aukerarik, ez zan eskolara joan, ezin izan eban, ez eukan, oin dinogun moduan, kultura handiegirik. Bera zan kultura, berezko kultura jantzia eukan, bizitzan ikasitakoa hausnartu eta honexek egin eban jakitun. Gorbeiapean jai-eto eta bizi izanda, ez dau urrun-er joateko aukera gehiegirik izan, baina beti ez da urrunera joan behar bizitzaren gauza preminaz-koenak zeintzuk diran jakiteko, batez be barruko hausnarketak egiten gaitu jakitun.

"Gogoratu eik Mendibil, erres-petu barik ez jaokela ezer!" honeexek izan ziran agurtzean entzun neutsazan atzen berbak.

ZERTZEAN



EÑAUT INTXAURRAGA

Gaia jarrita: "Ikasle zarienoí"

Irakasleon ahotsa nahi neuke hemen askatu zuek zaindu nahi horretan ez gara gitxi saiatu tarteka hezi zaituegu tarteka automatizatu tarteka zuribelztu ta tarteka koloreztatu tarteka gorrotoa erein tarteka enamoratu tarteka lotan ipini ta tarteka inspiratu maisu-maistrone izenean gura deusuet eskatu ondo esanak gogoratu ta txarto esanak parkatu.

Doinua: Norbere mundu intimo

ago

BEGI TXINDORRA

Heldu da bagila. *Tempus fugit inexorabile.*

Ipar hemisferioan eskizofrenia moduko bat daukagu urte amaierera dala-ta. Egutegiak abenduan amaituten dala urtea dinosku, baina bizitza lotuago joaku ikasturteen fetxetara. Izan be, urri guztietan hasten jaku bizitza barri bat, proiektu barriakaz. Bagilean, barriz, denpora tarte horren balantzea egitea toketan jaku; hurrengo "urtean" zeri eutsi eta zer bota ebazteko.

Udaren ataria be bada bagila. Uda, oporrak euki ala ez, etxetik kanpo egoteko sasoia da. Askorentzat, herriko jaietako sasoia. Bizitza gozatzeaz beste helbururik ez daukan eten bat. Ardurak ahaztu eta eguzkiaren laztanak edo gauaren epelak dakarren bizipoza gozateko ez-denporea. *Carpe diem.*

Egutegiak eta kanpoko giroak, herriko jaietako sasoirako, oporretarako, ardurak askatzeko eta bizimodua kalean gehiago egiteko atzerakontua hasi dala dinoe.

| Ekaina BAGILA |            |            |                 |                |                |        |
|---------------|------------|------------|-----------------|----------------|----------------|--------|
| Astelehena    | Martitzena | Eguzartena | Eguena          | Barikua        | Zapatarua      | Domika |
|               |            |            | 1               | 2              | 3              | 4      |
|               |            |            |                 | Udako tenporak | Udako tenporak |        |
| 5             | 6          | 7          | 8               | 9              | 10             | 11     |
| 12            | 13         | 14         | 15              | 16             | 17             | 18     |
| 19            | 20         | 21         | 22              | 23             | 24             | 25     |
|               |            |            |                 | San Juan jaiak |                |        |
| 26            | 27         | 28         | 29              | 30             |                |        |
|               |            |            | San Pedro jaiak |                |                |        |



**Lorategien Diseinu eta Gauzatzea**  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa

**LORAZAINTZA**

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
gorosti@gorostisl.com



**BEER & EDARIAK**  
Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17 Arkaitz 677 46 40 91  
Eduardo 647 72 96 24 Golder 666 58 20 06

Pozueta poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com



**agoa**  
hagin klinika

Marina Urigoitia Aldekoa  
Odontologoa

Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika

Bidebarri 1. behea  
48140 Igome-Bidaia  
T. 94 631 50 39  
ikolaguna Zerbaita: 900  
R.P.S. 31/06

ARTEA

# Desfibrilagailuak erabilteko formazinoa jaso dabe 17 lagunek



Arteako Udalak hiru desfibrilagailu ipini ditu herrian eta erreskatatzaile sarea osotu dau, formazinoa jaso daben 17 boluntariogaz.

Erredakzinoa

"Proiektu soziosanitario, parte-hartzaile eta komunitarioa da, non Arteako herritarrek izan diran proiektuaren ardatz" azaldu deusie BEGIturi. Udalagaz batera, Bexen Cardio Ermuako kooperatibek koordinatu dau proiektua, 24 orduz erabilgarri egongo diran desfibrilagailuak instalatzu, formakuntza jaso daben boluntarioen erreskatatzaile sare bat sortuz eta bihotz-biriken geldialdi bat emon ezkeru biktima ahalik eta bizkorren artatzeko erremintak erreskatatzaileen eskura jarritz.

Hiru desfibrilagailu eta erreskatatzaile sarea

Desfibrilagailu bi kalean ipini dira eta hirugarrena udaltzaingoaren autoan, mobikorra izan daiten helburuagaz. Izan be, "bihotz-biriken geldialdi bat izan dauan persona batek bizirik urten ahal izateko, sei minutu igaro baino lehen artatu beharra dago eta

EAEn, 2018ko datuen arabera, anbulantzia batek batez beste hamaika minutu behar ditu biktimaerengana heltzeako".

Hori dala-ta, Udalak desfibrilagailuaren erabilera eta bihotz-biriken bizkortzean oinarritutako formakuntzak ipini ebazan doban herritarren eskura, eta 17 boluntariok jaso eben formazinoa, erreskatatzaile sarea sortuz. Formakuntza saioak hiru ordutakoak izan dira, eta errealdade birtualaren bidez, praktika bat egiteko aukerea izan eben.

Aplikazinoa

Erreskatatzaile komunitatea osotuten daben 17 lagunei Reanibex Alert aplikazina sarbidea emon jakien desfibrilagailuagaz konektatu egoteko. Reanibex Alert aplikazinoa, bihotz-biriken geldialdi baten aurrean, erreskatatzaileen sarera bideratuko ditu alertak, gertaerearen barri emoteko eta parte-hartzea koordinetako. Puntu geografiko zehatza be emongo deute geolokalizazioaren bidez.

ARRATIA

# Arratiarrek zer botaten daben eukiontzi grisera erakusteko kanpaina abiatu dau AUMk

Arratia Garbia kanpainaren barruan, bagilaren 13tik 22ra, hondakinen karakterizazioak egingo dira Arratiako hainbat herritan.

Erredakzinoa

Hau da, errefusaren eukiontzietatik boltsa batzuk hartu eta barrukoa sailkatuko da, errefusara, beste eukiontzietara bota beharko litzatekeen zenbat bota dan ikusteko. Izan be, eukiontzi grisean

itxi beharko litzatekena ozta-ozta da %20, eta itxitako hondakinen %80 edo gehiago birziklau egin daiteke. Martian Igorren egindako karakterizazioak erakutsi eban Igorreko errefusa boltsetako edukiaren % 87 birziklagarria dala. Karakterizazioa kalean egiten dan erakustaldi bat da, gainerako



frakzinoko eukiontzi grisean ixten doguna ikusteko. Horretarako, errefusaren eukiontzitik (eukiontzi grisa) boltsa batzuk hartu eta jentearen aurrean zabalduen dira. Agertzen diran hondakinak gaika sailkatzen dira eta gero pisatu egiten dira, baktexaren pisuaren ehunekoa jakiteko.

Herriak eta egunak

Hondakinen karakterizazioak 18:00etan izango dira. Lehenengo, Bedian izango da, hilaren 13an, herriko plazan. Hurrengo egunean, hilak 14, Diman egingo dabe. Bagilaren 15ean eta 16an, Arantzazuko eta Ubideko plazetan egingo dira hurrengo hurrengo. Hurrengo asteen, astelehenean, hilak 19, Lemoan estankoa ondoan; martitzenean, Arteako plazan eta egunean, hilak 22, Zeanurin, aztertuko dira eukiontzi griseko hondakinak.

Gainera, informazio puntuak eta materialen banaketea be egongo da egun horreetan karakterizazioa egiten dan herritan. Informazio puntuak be egongo dira Lemoan bagilaren 17an estankoa ondoan, goizean; Areatzan, hilaren 21ean, goiz eta arrastiz eta Igorren, bagilaren 23an goiz eta arrastiz, eta 24ko goizean.

UBIDE

# Ubideko memoria jasoten dauan Ubide 1936-1945 liburua aurkeztuko dabe

Bagilaren 10ean, 18:30ean izango da Patxi Juaristiren

Ubide 1936-1945. Giza Eskubideen zapalketa eta

errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoan

izeneko liburuaren aurkezpene, Herriko Tabernan.

Egilea eta Aranzadiko Javier Burces egongo dira bertan.

Erredakzinoa

Aranzadi Zientzia Elkartek eta Ubideko Udalak argitaratutako lana da, Gogora, Memoria, Bizikidetza eta Giza Eskubideen institutuaren laguntzeagaz.

Hainbat ikerketa egin ditu Aranzadi Zientzia Elkartek, Gerra Zibilean eta lehen frankismoaren Giza Eskubideen zapalketa eta errepresioaren gainean: Deban, Azpeitian, Leioan eta Bakion, esaterako. Ubiden egindako ikerketearen emaitzak jasoten dira argitaratzear dagoan liburuan.

Patxi Juaristi Larrinaga

Patxi Juaristi Larrinaga (Markina-Xemein, 1967) Soziologian dokorea da. 1993tik EHuko irakaslea da Gizarte eta Informazio Zientzietako Fakultatean. 2006tik Gerra Zibilaren gaineko liburu eta artikulu asko argitaratu ditu. Euskaltzaindiaren Mikel Zarate Saria irabazi eban Euskal Herria Globalizazioaren aurrean, eta Maiatzeko artoaren ardura eta bost seme-alaba dauzkana ez dago musika bila liburu be saritu eban Arabako Diputazioak. Markinako Frontea. Markinako eta Xemeingo egoera politikoa eta soziala Bigarren Errepublikan eta Gerra Zibilean (1931-1939) da bere beste liburuetako bat.





IKASTETXE PUBLIKOA ETA OFIZIALA

**Helduen heziketa**

- Euskara
- Gaztelania
- Ingelesa/Frantsesa
- DBH titulua
- Informatika
- Eta gehiago...

Matrikula egiteko epea: ekainaren 15etik 30era eta irailaren 1etik 16ra.

www.epagaldakao.com · 94 456 60 98

Ellexalde 8, Kultur Etxea (Igorre) eta Arraibi 2 (Lemoa)



LEMOA

Seme-alaben eskubideen eta gurasoen konpromisoen gainean hausnartuteko hiru saio antolatu ditu Udalak



Erredakzinoa

Alkarzaintzarako Jagon Lemoa proiektuaren barruan, saio teoriko-praktiko bat, berbaldia eta ikuskizuna antolatu ditue, seme-alaben eskubideak eta gurasoen konpromisoak gai hartuta. Kotxepin Kultur Etxeko plaza espazioan izango

dira hirurak, 17:30ean, eta parte hartzeako izena emon behar da aldezturik [www.lemoa.net](http://www.lemoa.net) udal webgunean.

Bagilaren 2an, izango da lehenengo saioa, guraso eta seme-alaben arteko hartu-emon emozionalak landuteko. Sonia Hernandezek gidatuko dau saioa.

Hurrengo saioa bagilaren 28an izango da. Orduan Nerea Mendizabalek *Eguneroko gatazkak, komunikazio ez bortitza* izeneko berbaldia egingo dau. Enpatiaz entzuteko Marshall B. Rosenbergen ereduaren barri emongo dau Mendizabal psikopedagogoak, gurasoei eguneroko gatazkei aurre egiteko erremintak emoteko.

Azkenik, hilaren 30ean, *Gatazka: ataska edo aska* gurasoentzako ikuskizuna eskainiko dabe Nerea Mendizabal, Itziar Saenz de Ojer eta Aitor Furundarenak. Hartu-emonen inguruan hausnartze-ko, begirada umoretsua daukan kantu eta alkarriketa saioa da.

AREATZA/LEMOA

Astebete lehenago zabalduko dira Areatzako Udako ugerlekuak



Erredakzinoa

Bagilaren 10etik urri lehenengoaren 10era zabalduko ditue aurten Areatzako udako ugerlekuak. Barrikuntza moduan, ugerleku txikieraren inguruan eguzkitakoak egongo dira, eguzkitatik babesteko. Lemoan, barriz, bagilaren 17tik urri lehenengoaren 17ra egongo dira udako ugerlekuak zabalik.

Areatzako ugerlekuetan, goizeko 11:00etan zabalduko dira ateak 20:00ak arte. Sarreraren prezioak desbardinak izango dira lan eta jai

egunetan eta bonuak egongo dira, sarri joan gura dabenei merkeago urten jakien. Bonuak, Arantzazu, Artea, Igorre eta Dimakoek be izango ditue, errolda agiria erakutsita eta Areatzako herritarren moduan pagauko dabe.

Lemoa

Lemoako udako ugerlekuen ordutegia 11:00etatik 19:30ak arte izango da. Prezio desbardinak egongo dira norbanakoen ala familien egorea kontuan hartuta eta bonuak egongo dira sarri joan gura dabeneztat.

ZEBERIO

Lau eguneko jai egitaraua prestatu dabe Zeberioko Ermitabarri auzoan San Antonio jaietarako



Erredakzinoa

Zeberioko Ermitabarri auzoak San Antonio jaiak ospatuko ditu bagilaren 9tik 11ra eta 13an, San Antonio. Horretarako jarduera ugari antolatu ditue. Trikipoteoak eta elektrotxarangeak alaituko dabe giroa musikeagaz; sardina jana, herri bazkaria, herri meriendea, eta txokolatea be egongo dira, eta pelota partiduak, plater tiroa, bola-jokoa eta pato lasterketea ez dira faltauko, auzotar eta bisi-tarien gozamenarako.

Bagilak 9, barikua

18:00etan, jai hasikerako txupina.  
18:30ean, pelota partiduak.  
21:00etan, sardina jana.  
21:30ean, elektrotxarangea.

Bagilak 10, zapatua

11:00etan, umeentzako jolasak/puzgarriak.  
13:15ean, herri kirolak.  
15:00etan, herri bazkaria.  
16:00etan, plater tiroa.  
18:00etan, igel/txapela jokoa.  
18:30ean, bola-jokoa.  
19:30ean, herri meriendea.  
19:30ean, musikea.  
01:00etan, txokolatea.

Bagilak 11, domekea

12:00etan, helduen pato lasterketea.  
12:15ean, umeen pato lasterketea.  
13:00etan, trikipoteoa.

Bagilak 13, martitzena

13:00etan, mezea eta barauskaria ermitan.

ZEBERIO

Untzueta mendira igoerea eta ekitaldia antolatu dauz Untzueta Nafar Gaztelua taldeak



Erredakzinoa

Bagilaren 3rako dago programata, Zeberio eta Orozko ba-

nanduten dituan Untzueta mendirako igoerea. Han, 11:30ean, hamaiketako herrikoia eta 12:00etan, aureskua eta ekitaldia egingo dabe gogora ekarteko Nafarroako erreinua izan zala inguru hori eta mendian dagozan gazteluaren aztarnak erreinu hori defendidu ebela. Txalapartariak eta albokariak be egongo dira ekitaldia girotzen.

2020an izan ezik, 2014tik egi-ten dabe mendi igoerea eta ekitaldia Untzueta Nafar taldekoek.

Zeberio, Ugaok, Arrankudiagak, Zollok, Arakaldok, Orozko eta Laudiok osotuten dabe taldea eta bere helburua memoria historikoa berreskuratzea, ondare historikoa baloreen ipintea eta horren bitartez, "lurraldetasuna finkatzea" da.

ARRATIA

Jaietako gaueko autobus zerbitzua Igorreko jaiakaz hasiko da

Erredakzinoa

Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM), Galdakao eta Zornotzako Udalakaz batera, herriko jaietako egun nagusietan, gaueko autobus zerbitzua ipiniko dau. Arratia, Amorebieta-Etxano eta Galdakao gazteek, kotxea hartu beharrean, autobusa erabili dagien.

Zerbitzua bagilaren 10ean ipiniko da martxan, Igorreko jaietan, eta urri lehenengora arte, Galdakao jaiak izan arte, egongo da.

Arratiako herrietan, Lemoan izan ezik, autobus geroalekuetatik urtengo da autobusa; Lemoan, Korreosen ondotik. Amorebieta-Etxanon, anbulatorio ondoko geroalekuan hartu behar da eta Galdakaon, Plazakoetxen.

Egun eta orduak

Jaietatik bueltetako autobus zerbitzua, Igorren, jaietako zapatu bietan, bagilaren 10ean eta 17an egongo da. Bedian, be zapatuan, bagilaren 24an; Arantzazun, bagilaren 30ean, barikuan, eta hurrengo egunean, Diman izango da. Amorebieta-Etxanoko Karmenetan, gau bitan eskainiko da zerbitzua: garagarriaren



15ean eta 22an. Lemoan, garagarriaren 29an, egongo da etxera bueltetako autobusa eta Zeanurin, abuztuaren 12an. Areatzan, abuztuaren 25ean, barikuan, eskainiko da zerbitzua. Artean, urri lehenengoaren 8ko gauerako ipini dau autobusa AUMk. Amaitzeko, urri lehenengoaren 9an eta 16an Galdakaotik bueltetako autobusak egongo dira.

Ordutegiari jagokonean, 02:30ean eta 05:00etan hartu ahal izango dira autobusak, Arantzazun izan ezik. Arantzazutik, 03:30ean hartu ahal izango da autobusa herrira bueltetako.



LEMOA

# Euskal doinuek hartuko dabez kaleak Euskal Jaian

Poteo musikatuagaz hasi, herri bazkariagaz eta bazkaloste musikatuagaz jarraitu eta Elkartrukeko gazteen afari salmenteagaz amaituko da jaia iluntzean.

Erredakzioa

Bagilaren 3an izango da Lemoan aurtengo Euskal Jaia. 13:00etan hasiko da jubiladuen tabernatik urtengo dan poteo musikatuagaz. Zornotzako Triki-Piu-Band taldekoek ipiniko dabez euskal musika doinuak. Ostean, bazkari herrikoia egingo da udaletxeko plazan; euria balitz, eskolako aterpean.

Bazkalostean, barriro be, euskal musikeak hartuko dau protagonismoa, euskal kantutegian oinarritutako NKT Nafarroa Kanta Taldeagaz. Udaletxeko plazan izango dira taldekoak, bazkalostea animetako.

Elkartruke proiektuan parte hartzean daben gazteek afariak salduko dabez 19:30etik aurrera.

Aurtengo proiektua, gazte emanzipazioaren gainekoa da. Etxebizitza kooperatiboak eta komunitarioak ezetuteko Edinburgora joango dira gazteak

garagarriaren 10etik 16ra. Bidaia, ostatua eta gosariak 250 euroko prezioa dauka eta Euskal Jaian bidairako dirua lortu gura dabe afariak salduz.



DIMA

# Espetxean dago Xabier Sanchez, De Miguel auziagaitik kondenauta

Erredakzioa

Xabier Sanchez Robles Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Gazteriarako eta Ekintza Komunitarioko zuzendari ohia izan da De Miguel auziagaitik espetxeratu daben lehenengoa.

Dimakoa maiatzaren 15ean sartu zan Zaballako (Araba) kartzelan. Sanchez Roblesekin zazpi urte eta hilabete bat eta hamabost eguneko espetxe zigorra dauka, ustelkeriagaz lotutako hainbat delitugaitik.

Alfredo de Miguel eta ustelkeria sareko partaide ziran beste batzuen laguna zan Kultura Sailekoa, eta kontratuak emon eutsazan Kataia Consulting, Errexal eta Orzi Mugak alderdikide batekin kontrolatzen ebazan enpresei. Kasu batzuetan esleitutako lana be ez zan egin. Sanchez Roblesekin zergaitik parte hartu eban honetan ez da argitu; izan be, ez

da ikusi irabazi partikularrik Sanchezen aldetik.

2009an, enpresari batekin, De Miguel eta Telleria berari estorsioa egiten saiatu zirala salatu eban. Ikerketearen ostean, 2019an, Arabako Probintzia Auzitegiak delituak frogatutzat emon eta 15 inputaturi, tartean Dimakoari, zigorrak ipini eutsezan. Aurtengo urtailean, Espainiako Auzitegi Gorenak berretsi ebazan zigorrak, eta martiaren 15ean emon eutsan Arabako Probintzia Auzitegiari ebazpena. Dimakoa izan da espetxe zigorra saihesten saiatu ez dan bakarra.



ARRATIA

# Hilketa matxista bi salatze konzentrazinoak egin dira Igorren

Euskal Herrian hilketa matxista bi egon dira hamabost egunetan.

Erredakzioa

Arratiako Mobimentu Feministek eta Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxak deituta, 100 lagun inguru batu ziran Igorren, maiatzaren 18an, egun bi lehenago Orion gertatutako hilketa matxistea salatu eta hildakoaren familiari alkartasuna adierazoteko. Hilaren 30ean, barriro be batu ziran 150 lagun inguru, egun bi lehenago Gasteizen beste erailketa matxista bat gertatu zalako.

Lehenengoan, "matxismoak hiltzen gaitu". "Lourdes, gogoan zaitugu" eta "Gora borroka feminista" mo-

duko aldarri eta salaketak oihukatu ebezan. Horrezaz gainera, Mobimentu Feministek hainbat komunikabide eta sare sozialetan zabaldu diran irudiak salatu ebazan, familiari eta gertukoei eragindako minagaitik. Hiltzaileak bere burua hil egin eban, eskopeta batez andrea hil ostean.

Gasteizko erailketa dala-ta espetxean dago Maialen Mazonen usteko hiltzailea. Gizonak urrutze agindua euki arren, urratu egiten eban agindua eta hori baekiala Ertzaintzak esan eban Josu Erkoreka Segurtasun Sailburuak. Andrea, apartamentu hotel baten hilda

topau eban, indarkeria zantzuakaz eta 3 urteko umea ondoan egoala. "Epaileari eta Ertzaintzari galdetuko geunskie, erasotzailea urrutze agindua apurtuten dabilala jakinda, zergaitik ez eban atxilotu edo bere kontrako neurriak hartu? Oingoan be andrearengan fokua!" salatu eban Arratiako Mobimentu Feministek Igorreko elkarretaratzean.

Konzentrazino bietan ekarri zan akordura, "andron kontrako indarkeriak ez daukala etenik eukiko gizartea egituratuten dauan matxismoagaz amaitu arte" eta "feminismoaren bidea dala bakarrik gizartea errotik aldatuko dauana".

Indarkeria matxistea

Indarkeria matxistearen ondorioz aurtengo Euskal Herrian hildako lehen andrea izan da Lourdes del Hoyo eta bigarrena Maialen Mazon. Igaz, bost izan ziran hildakoak. 2003tik, indarkeria matxistek 119 andrea eta 11 ume hil ditu Euskal Herrian.

ARANTZAZU

# Eraso matxista, errazista eta LGBTIfobikoen kontrako aldarriak erasotu ditue barriro

Erredakzioa

Igorren gertatu zan moduan, oingoan Arantzazun erre eban herri sarrerako "Arantzazuk ez dau eraso matxista, arrazista eta LGBTIfobikorik onartzen" kartela eta honegaz batera, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatekoa. Arratiako Mobimentu Feministek zabaldu tako kartel batzuetan salatu eban, "lehen sorginak eta oin kartelak" erreten dabezala erasotzaileek; "gure herrietan ez doguz matxistak gura" berretsi eban: "Hemendik

hasten da eta gero zer?"

Maiatzaren 25eko eraso honegaz, hiru dira sei hiletan erre dabezan kartelak. Erasoz guztiak egin ditue *modus operandi* bardinagaz, kartelen artean gupil bat erreta. Igorreko kasuan, abenduan saiatu ziran lehen kartela erreten baina ez eban guztiz lortu. Protestara be urten ziran mobimentu feministea eta Igorreko Udala. Bigarrean oster, urtailean, gupil bat makil batez kartel bien artean sartuta lortu eban aldaria guztiz erreteta. Oingoan Arantzazun gertatu dan bardina.



IGORRE

# Sabadell Bankuak barriro ipini dau martxan Kiñu Gaztetxearen kontrako prozesua

Erredakzioa

Igorreko Kiñu Gaztetxearen asanbladeak jakinarazo dauanez, gazteek barriro jaso dabe gaztetxearen salaketak eta beraz, martxan dago Garbeko eraikin okupatua hustuteko prozesu judiziala. "Herriarontzako justiziak ez dau bigarren aukerarik emoten, bai antza espekulazileentzat", adierazo dabe komunikatuan. Izan be, oin dala urtebete izan eban epaiketea, baina Sabadell Bankuaren abogaduak ez ziran aurkeztu.

Asanbladeak azaldu dauanez, oin, "errepresioaren gainetik, laster kalean zein epaitegietan", Kiñu Gaztetxea defendiduteko burrukea abiatuko dau, oindino deialdirik iragarri ez dan arren. Gainera arduratuta agertu dira, Igorreko Udala Gobernu barriak bost udaltzain ipinten baditu, Ertzaintzagaz pasau izan dan moduan, euren jarduna oztopatu dagielakoan.



AREATZA MUSIK & BEER

# Hamaika banda egongo dira Areatzako Musik & Beer, garagardao eta musikearen egun biko nazinoarteko jaialdian

Bagilaren lehengo bariku-zapatuan, hilaren 2 eta 3an izango da Areatza Musik & Beer, bertoko eta nazinoarteko musika eta Euskal Herriko garagardao artisauaren jaialdia.



Koritni talde australiarra.

Erredakzinoa

Edgar Blues Trio, La Perra Blanco, Henrik Freischlader, Eric Steckel, Bob Wayne & The Outlaw Carnies, AEBtik datozanak, James Room bilbotarrak segiduko dau eta Basement Saints suitzarrek Euskal Herrian estreinakoz egingo daben emonaldiagaz amaituko da Kallartean espazioaren eskaintzea. Arrastian plazako agertoki nagusian Los Retros bizkaitarrek 70eko hamarkadako rock-bluesaren onena taularatuko dabe, ostean Madrildik datorren Atracok rock & roll-a proposatuko dau Tequila bezalako talde mitikoak gogorarazoteko. Gero helduko da Komodor bretoien rock psikodelikoaren energiaz gozatzeko momentua. Ostean, Basement Saints hirukoteagaz gozatzeko aukera izango dogu, rock proposamen indartsuagaz. Atzenik, Koritni australiarren txandea izango da, lehen aldiz peninsulan, hard rockaz gozatu ahal izango dogu, Hellfest bezalako jaialdi europarretatik hainbat aldiz igaro dan talde baten eskutik. Amaitzeko, eta gehiago gura dogunontzat, DJ Alai galdakoztarraren jaiaz gozatzeko aukera izango dogu".

"Zapatu eguerdian Kallartean

espazio barria estreinauko dogu, neo-countryaren mundu mailako erreferentziaategaz, Bob Wayne & The Outlaw Carnies, AEBtik datozanak, James Room bilbotarrak segiduko dau eta Basement Saints suitzarrek Euskal Herrian estreinakoz egingo daben emonaldiagaz amaituko da Kallartean espazioaren eskaintzea. Arrastian plazako agertoki nagusian Los Retros bizkaitarrek 70eko hamarkadako rock-bluesaren onena taularatuko dabe, ostean Madrildik datorren Atracok rock & roll-a proposatuko dau Tequila bezalako talde mitikoak gogorarazoteko. Gero helduko da Komodor bretoien rock psikodelikoaren energiaz gozatzeko momentua. Ostean, Basement Saints hirukoteagaz gozatzeko aukera izango dogu, rock proposamen indartsuagaz. Atzenik, Koritni australiarren txandea izango da, lehen aldiz peninsulan, hard rockaz gozatu ahal izango dogu, Hellfest bezalako jaialdi europarretatik hainbat aldiz igaro dan talde baten eskutik. Amaitzeko, eta gehiago gura dogunontzat, DJ Alai galdakoztarraren jaiaz gozatzeko aukera izango dogu".

Eta musikea eta garagardao ardatz dituan jaialdi honetan, urtero lez, Basqueland Brewing-eko garagardao artisauak dastatzeko aukerea egongo da, "Beste behin, mundu mailan ezaguna dan Hernaniko Basqueland Brewing garagardaotegia izango da AMBren aurtengo edizioan. Aurten be nazinoartean saritutako garagardoez gozatzeko aukerea izango dogu, eskaintako musika eta gastronomiaren pareko kalidadekoak. Hamahiru iturrietan estilo tradizionaleko kainak zein barriak dastatu ahal izango doguz: Bitter ingelesak, IPak, Belgia Ale-ak edo geroz eta zale gehiago daukiezan Imperial Stout eta Ale garratzak. Hori dana, Kallartean gune barriaren eskaintza gastronomiko zabalgaz maridajea eginda" dinoe antolatzaileek. "Atzen finean, artisau garagardaoaz gozatzeko aukera parebakoa, Euskal Herria osoan bakarra dan Areatzako jaialdi berezian" gehitu dabe.

Jatekoari jagokonean, Bizkaiko foodtruck bi egongo dira eta Euskal Herriko hainbat ekoizle euren produktuak saltzean. Edizino honetan, Arratia errekearen alde

bietan ipiniko dira karpak; baten musikea egongo da eta bestean, ekoizleak: Dando la brasa eta Mafaldo foodtruckak, Kaitxo txokolateak, Crisla Sweets, Ama Txo gaztaiak eta TXP Txomin Parrilla.

Musikea eta gastronomiaz gainera, beste ekintza batzuek be eukiko dabe lekua jaialdian Munduko V. Garagardo Kupelen Jaurtiketa Lehiaketek, berbarako.

**Egitaraua**  
**Bagilak 2, barikua**  
19:00etatik aurrera, Edgar Blues Trio, La Perra Blanco, Henrik Freischlader eta Eric Steckel.

**Bagilak 3, zapatua**  
12:00etatik 18:00etara Kallartean gune barrian, Bob Wayne & The Outlaw Carnies, James Room eta Basement Saints. 12:00etan, maridajea.

Jatekoa eta edatekoa: Dando la brasa eta Mafaldo foodtruckak, Basqueland Brewing garagardaoa, Kaitxo txokolateak, Crisla Sweets, Ama Txo gaztaia eta TXP Txomin Parrilla.

17:00etan, Munduko V. Garagardo Kupelen Jaurtiketa Lehiaketek. 18:00etatik aurrera: Los Retros, Atraco, Komodor, Basement Saints eta Koritni. Ostean dj Alai.

EDGAR BLUES TRIO (Bagilak 2, 19:00)

Edgar García, "Edgar Blues" Bartzelonan 1988an jaiotako gitarristea eta kantaria da. 19 urteaz Demian Domínguez ezetu eban, bere gitarra irakaslea, eta beragaz jo eban Europa osoan, bajujotzaile hasikeran eta bakarkako telonero gisa, gero.

2020an, Edgar Blues Trio sortu eban, Rua Roan bajuan zala eta Aritza Castro baterian. *The Next Step* (2021) lehen LP elektrikoa grabau eban.

Album honek arrakasta handia izan dau Europan. Espainian gehien saldu diran albumen zerrendan lehenengoa da. Erresuma Batuan 20 album salduenen artean egon zan *The Next Step*, baita blues irratietan gehien erreproduziduten diran 10 diskoen artean be.

LA PERRA BLANCO (Bagilak 2, 20:30)

Andaluziako hegoaldean (La Línea de la Concepción) jaiotako taldea da Perra Blanco Trio, 2017an. Alba Blanco (abeslaria eta gitarristea) da taldearen burua. Alba Blancok *power* trio hau sortu eban 1950eko hamarkadako musikan inspirauta. Musika baltzaren, -rhythm and blues edo gospel- eragina dauka, baita musika zuriarena be; hala nola, hillbilly, rockabilly, country, bluegrass...

Gaur egun, musikari ospetsuakaz jotzen dau, Guillermo González kontrabaju-jotzailea eta Jesús López bateria-jotzaileagaz, esate baterako; 1950eko hamarkadako eszenako proiektu askotan esperientzia daukien lujozko musikariakaz, hain zuzen be.

HENRIK FREISCHLADER (Bagilak 2, 22:30)

Blues gitarristea, kantautorea, ekoizlea eta instrumentistea da. Bere disko askotan gitarrea, bajua, bateria, perkusinoa eta Hammond organoa jotzen ditu, abestiak idatzi eta konposatzeaz gainera. Wuppertal-eko (Alemania) musikari autodidaktea da eta Joe Bonamassa, B.B. King, Gary Moore, Peter Green, Johnny Winter eta bluesaren beste izen handi batzuen teloneroa izan da.

Bere estiloa ezin da blues hustzat jo. Bluesa bere kanta guztien oinarria bada be, sarritan, rock, jazz, soul eta funk estiloak nahasten ditu.

Mundu osoan jo dau agerleku eta jaialdi handienetan. Kontinente zaharreko gitarrista eta blues-artista onenetarikoa da.

Bere 18. diskoa aurkeztuko dau: *Henrik Freischlader Recorded by Martin Meinschäfer II*. Harrigarria dirudian arren, peninsulan dagoan lehen aldia da. Musika estilo honetako urteko kontzertu handienetako bat izango da, duda barik!



ERIC STECKEL (Bagilak 2, 00:30)

Steckel ume prodijioa izan da; izan be, 11 urte besterik ez ebazala grabau eban bere lehen bildumea zuzenean (2002) eta 13 urtegaz John Mayall lagun handiagaz bira egin eban hainbat herrialdetan.

Gitarreagaz barrizalea izateaz gainera, blues munduan genero barri baten ordezkaria dala esan geinke, bluesmetalarena, hain zu-zen be. Estilo honetan, eta iraganeko soinu garbiakaz bere-berea dan estiloa sortu dau.

Ray Charles, Steve Vai, Gregg Allman, B.B. King, John Mayall edo Johnny Winterregaz batera egon da agerlekuan. Beraz, derigorrezko zitea da. Aurretik musikaria ezetuten ebenak oin be harrituta geratuko dira altxor honegaz.

BOB WAYNE & THE OUTLAW CARNIES (Bagilak 3, 13:30)

Bob Wayne "bidelapur" amerikarra eta bere Outlaw Carnies taldea Areatzara etorriko dira euren estiloan interpretatutako klasiko- zeto- tako 13 More Truckin' Songs disko barria aurkeztera.

Waynek goian manteniduten dau outlaw countryaren aldarika- pen- a. Bere ahotsak Cash-en oihartzunak ditu eta bere musikeak punk eta country sakona nahasten ditu.

Wayne Seattletik dator eta 2004. urtean ekin eutsan musikearen abentureari, outlaw country neo country estiloakaz, autoeditatutako lehen diskoa argitaratuta, 13 Truckin' Songs izenekoa.

Harrezkeroztik, Johnny Cash, Waylon Jennings eta Hank Williams idoloen estiloari jarraituz, errepidez, hautsez eta bidelapurrez bete- tako tabernaz betetako musika ibilbide sendoa jorratu dau.

JAMES ROOM (Bagilak 3, 15:00)

Kantautore bilbotarrak, Etxean EPan, Fair Saturday-ren inaugura- zino ekitaldian Miribillako Bilbo Arenan estreinautako abestiak aurkeztuko ditu.

Etxean EP barriak, Agur Jaunak euskal kantutegiaren klasikoaren bersino bi izateaz gain (akustikoa eta elektrikoa), Egin Hegan inge- lese- z sortutako abestiaren gaztelaniazko eta euskerazko bersinoak be baditu. Lan honek 2021 (2021) diskoari erreleboa hartzean deuto eta, hala, hainbeste kritika on jaso dituan Bilboko autorear- en diskografiagaz bat egiten dau.

Horreezaz gainera, honakoak izan dira bilbotarraren beste lan batzuk: Weird Antiqua (2015) eta Honest Man Blues (2018), lña- ki "Uoho" Antonek 2020an kaleratutako singleak eta Bunburyren El Exteriorene ikuspegi personala eta Bilboko Orkestra Sinfonikoko (BOS) hari-laukote bategaz batera egindakoa.

BASEMENT SAINTS (Bagilak 3, 16:15 eta 23:15)

2012an sortu zan bikote taldea. 2014an, oster- a, hiruko taldea izatera pasau zan batera bategaz osotu zanean. Orduan, lehen EPa Free Souls argitaratu eban, bildutako riff erritmo eta letretatik sortutakoa. Lehen albuma 2016an kaleratu eben eta diskoak ate asko zabaldu eutsazan bandeari.

Hurrengo urtean bira bat egin eben Alemanian eta Espainian zehar eta Montreux-ko Jaialdian jo eben. Urte horretan kaleratu eben bigarren diskoa, Bohemian Boogie, 1970eko hamarkadako hegoaldeko rock'n'roll eta rock-aren nahasketea dakarrena.

Hamarkada baten zehar gaueko klubetan izerdia bota eta gitarra sokak apurtu ondoren, hainbat mugarri lortu ditue. 2021ean tal- dea barriztu ondoren, hirugarren albuma atera eben, Stimulation izenekoa. Album horregaz aro barri bat hasi zan taldearentzat eta barri- ro be errepidean dagoz.

LOS RETROS (Bagilak 3, 18:00)

Talde kementsua da, 1970eko hamarkadaren bukaerako rock gi- hartsutik eta bluesetik edaten dauana. 2021ean sortu zan Dead Bronco, Allnighters eta Sonic Trash proiektuetako kideakaz, besteak beste. Riffetan eta gitarra-soloetan bildutako zuzeneko emonaldia da Bizkaiko talde honen aurkezpen-gutuna eta argumentu nagusia.

ATRACO (Bagilak 3, 19:30)

Madrilgo rock and roll taldea da. Taldearen izen bera daukan Atraco lehen diskoa, 2019an merkaturatu eban taldeak, hainbat artistaren laguntzeagaz; besteak beste, Ariel Rot, Alejo Stivel, Juanser eta Julián Kanevsky. Chilok ekoitzi eta Denis Blackhamek masterizau eban (Led Zeppelin, Status Quo (banda)...). Disko horrer- i esker, taldeak birak egin ebazan Espainian eta Argentinan.

2020an Tequila bandak iragarri eban Atraco izango zala bere azkenengo birako ikuskizunak zabalduko ebazan bandea.

KOMODOR (Bagilak 3, 21:15)

Komodor taldeko gazte bretoiek ule luzea daukie, baina ez memoria laburra. MC5en, Alice Cooperren, Iggy Pop-en eta beste rockzale batzuen riff distorsionauakaz hazi ziran eta laukoteak hirurogeta hamar- reko hamarkadako rock vintagearen kodeak berrikusten ditu, psikodelia apur bat gehituz.

1970eko hamarkadako rock psikodelikoaren eta heavy metalaren arteko erdibidean, Komodor talde bretoiak bizirik manteniduten dau riff poderetsuen soinu ha, melodia ospetsu batzuk burura atoan ekar- ten dituanak; esate baterako, Grand Funk Railroad, James Gang edo MC5renak.

2019an argitaratutako lehen EP baten ondoren, Komodorrek 2021eko udagoienean argitaratu eban Nasty Habits bere lehen diskoa, "muskulu elektrizatzailearen eta rock retroaren erakustaldia" dana.

KORITNI (Bagilak 3, 01:00)

Sidneyko taldea da, Green Dollar Colour-etik sortutakoa. Talde hori apurtu ondoren, Lex Koritnik Koritni sortu eban 2006an. 1970eko hamarkadako hard rock eta AEBetako sleaze rocka nahastuta, taldeak Aerosmith, Guns N'Roses, Van Halen edo AC/DCren eragina dauka.

Hainbat disko ditue eta Airburne eta The Answer bezalako taldeen mai- lan dago hard rockaren munduan. Disko asko Mike Fraserrek ekoitzi ditu (AC/DC, Aerosmith, Van Halen...). European eta mundu mailan erreferen- tzi- azko jaialdietan parte hartu dabe, milaka lagun- en aurrean, Hellfesten esaterako.

Australiatik Frantziara joan ondoren, Lex Koritni musikari barriakaz in- guratu zan. Long Overdue albuma grabau eban igaz, aurtengo aprilean argitaratu dana.



ORGANIKOAREN BILKETA SELEKTIBOA  
SUSTATZEKO INFORMAZIO-PUNTUAK ETA  
HONDAKINEN KARAKTERIZAZIO PUBLIKOAK:

|  | HERRIA<br>Lekua                        | INFORMAZIO-<br>PUNTUAK ETA<br>MATERIALEN<br>BANAKETA     | HONDAKINEN<br>KARAKTERIZAZIOAK |
|--------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------|----------------------------------------------------------|--------------------------------|
| EKAINAK 13<br>martitzena                                                             | BEDIA<br>Plazan                        | 10:30-13:30<br>16:00-19:00                               | 18:00<br>Plazan                |
| EKAINAK 14<br>eguztena                                                               | DIMA<br>Plazan                         | 10:30-13:30<br>16:00-19:00                               | 18:00<br>Plazan                |
| EKAINAK 15<br>eguzena                                                                | ARANTZAZU<br>Plazan                    | 16:00-19:00                                              | 18:00<br>Plazan                |
| EKAINAK 16<br>barikua                                                                | UBIDE<br>Plazan                        | 16:00-19:00                                              | 18:00<br>Plazan                |
| EKAINAK 17<br>zapatua                                                                | LEMOA                                  | 10:30-13:30<br>Estankoaren ondoan                        |                                |
| EKAINAK 19<br>astelehena                                                             | LEMOA                                  | 10:30-13:30 Arraibi<br>16:00-19:00<br>Estankoaren ondoan | 18:00<br>Estankoaren ondoan    |
| EKAINAK 20<br>martitzena                                                             | ARTEA<br>Plazan                        | 10:30-13:30<br>16:00-19:00                               | 18:00<br>Plazan                |
| EKAINAK 21<br>eguztena                                                               | AREATZA<br>Plazan                      | 10:30-13:30<br>16:00-19:00                               |                                |
| EKAINAK 22<br>eguzena                                                                | ZEANURI<br>Plazan                      | 10:30-13:30<br>16:00-19:00                               | 18:00<br>Plazan                |
| EKAINAK 23<br>barikua                                                                | IGORRE<br>Lehendakari<br>Agirre kalean | 10:30-13:30<br>16:00-19:00                               |                                |
| EKAINAK 24<br>zapatua                                                                | IGORRE<br>Lehendakari<br>Agirre kalean | 10:30-13:30                                              |                                |



ARRATIAKO VDALEN  
MANKOMUNITATEA





**DIMESTEN**

# Herri hezitzailearen jaia ospatuko dabe Diman bagileko lehenengo bariku-zapatuan

Bagilaren 2an eta 3an Dimesten Eguna ospatuko dabe Diman, lehenengoz. Herri txikia izan arren, Diman ekintza asko antolatuten dira urtean zehar, herritarren parte-hartze handia izaten dabenak eta honeek guztiak marko berean ipini gura ditue Dimesten proiektuaren bultzatzaileek, herri hezitzailearen zazpi baloreak danetan kontuan hartuta. Hori dala-ta, herriko alkarteakaz alkarlanean, parte-hartzean oinarrituta, eta herri hezitzaileen printzipioakaz, Dimesten eguna antolatu dabe.

**Erredakzinoa**

Barikuan, frontoi txikian, arpegiak pintetan, sare bat egiten eta pelotakaden erronkeagaz emongo deusie hasikerea egitarauari. Gero plazan, konzentrazinoa egongo da eta jantza kolektiboa egingo dabe; ostean, kantu poteoa eta umeentzako afari-meriendea, eta Pantailak Euskaraz-en bideo emonaldia eta argazki kolektiboa egingo dira frontoi txikian. 23:00etan, Very Txarrak-en kontzertua egongo da plazan. Hurrengo egunean, 11:00etan, pastoralara egingo dabe eskolameek, Andran Parkean lorak landutako dabez 12:30ean; plazan artoak garandu eta lokotzak batuko ditue 13:30ean, eta bertso-bazkaria egongo da gero, erromeria bategaz jaia amaitzeko plazan.

Herriko ekintza guztiei emon gura deusien markoa, hurrengo 7 baloreek osotuten dabe. Aikomen baloreok: Euskerearen erabilereatik abiatuz, euskeratik eta euskeraz, umeen kultura aitortu eta aisialdi hezitzailea sustatutea; parte hartzeako eta erabagiteko ahalmena emotea; herritar zaugarriak erdigunean ipintea; feminismotik abiatuz, aniztasunean bardin eta parekide izatea; alkarlanean, herriko komunitate sarea eta auzolana sustatutea; bertoko kultura transmitidutea, eta ingurumen naturala jagon eta errespetetea.

**Zazpi balore, zazpi kolore**

Dimesten jaira kolorez jantzita joateko eskatzen dabe antolatzailleek, herria be kolorez jantzi ahal izateko. Izan be, koloreek garrantzia handia daukie herri hezitzailearen bultzatzaileentzat eta printzipio baktxari kolore bat lotu jako. Egitaraua, zazpi zenbakiairen eta koloreen sinbolismoagaz beteta dago. Holan, barikuan, 17:00etan, arpegiak pintau eta herri hezitzaileen printzipioen zazpi koloretako lazuakaz sarea egingo dabe bertaratutakoek Andraizeakoakaz. Sarea frontoi txikian ipiniko dabe, bertan luzaroan egon daiten.

18:30etik aurrera, pelotea gelditu barik, danon artean, peloteari (7.)777 pelotakada baietz emon da erronkea. 111 bider 7, danon artean, parau barik, horixe da erronkea.

Ondoren, Etxean Gura Doguz taldekoek eta Hamaika Kantu taldekoek konzentrazinorako deialdia egin dabe, egoera prekarizauan dagozan persona guztiei herriaren babesa adierazoteko: adinekoei, umei, mobiduteko zailtasunak daukienei errefujia duei eta presoiei, esate baterako. Elkarretaratzea 20:00etan izango da plazan eta horren ostean, 20:30ean, jantza kolektiboa egingo da, Gazte Barri Dantza Taldearen gidaritzapean, zuzeneko musikeagaz.

Gero, 21:00etan, albokariak egongo dira jotzen tabernaz taber-

na, Hamaika Kantuk eta Jubiladuen alkarteak antolatutako kantu poteoan. Antolatzailleek, kantuen hitzak jasoten dituen paper batzuk bananduko ditue jentearen artean, danon artean kantetako. "Tabernariakaz be egin dogu

berba poteakaz batera pintxoak egon daitezak. Danek esan dabe baietz, prest dagozala" azaldu deutso BEGITURI Sendoa Miranda antolakuntzakoak. Umeak ez daitazan tabernetan egon, "Guraso Elkarateak lagunduta, umeentzako

pintxoak be egongo dira: afaria bermatuta daukie danek".

Pantailak Euskaraz-ek sortutako atzen bideoa ikusi ahal izango da 22:30ean, eta argazki kolektiboa egingo da gero. Amaitzeko 23:00etan, Very Txarrak, Berri Txarrak-en tributo taldearen kontzertua egongo da.

Zapatuan, 11:00etan, Loraldia Eskolaren proiektuaren barruan Dimako eskolako LH 5eko 21 ikaslek, Elena Bezanillaren gidoiagaz egindako Landatik hirira joanda etorri pastoralara antzeztuko dabe frontoian. Pastoral Diman kokatzen da. "Ume batzuk bizi ziran Diman. Ure-eremua eta animaliakaz bizitea gustetan jakien eta ez jakien ezer falta, pozik bizi ziran. Ha-ta guzti be, uria ezetuteko irrikan egozan. Jentetzea, zaratea eta motorren burrunben artean, musikea, jantzea eta amodioa topau eben. Bilbon egun bat igaro ondoren, pozik itzuli ziran Dimara, landak eta uriak dabelako euren alde ona eta ez hain txarra" sinopsiaren arabera.

Horren ostean, eskolatik hur dagoan Andran Parkean, lora koloretsuak landutako dabez, herri hezitzailea amesten dabenek. 13:30ean, herriko batek ekarritako artoak garandu eta ea nok lokotz gehiago bildu ibiliko dira ostean. Bertso-bazkaria, Jon Maia eta Aitor Sarriegi bertsolariak girotuko dabe eta amaitzeko, 18:00etan, erromeria egongo da Kittu taldeagaz.



**Gure ikastetxeak**  
**Euskoalduna**  
**kalidadezkoa**  
**herrikoia**

**JB Eguzkiza Meabe HI**  
Tel.: 94 631 32 28 Lemoa

**Ugarana HI**  
Tel.: 94 631 55 32 Dima

**Zubialde HI**  
Tel.: 94 648 06 82 Zeberio

**Zeanuri HI**  
Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri

**Ikastola Arratia HI**  
Tel.: 94 428 78 15 Artea

**Arratia BHI**  
Tel.: 94 428 79 34 Igorre

**Areatzako Herri Eskola**  
Tel.: 94 673 90 93 Areatza

**I. Zubizarreta HLHI**  
Tel.: 94 673 60 22 Igorre

**Haur Hezwuntza**

**Lehen Hezwuntza**

**Dorrigorrezko Dagarren Hezwuntza**

**Datxilergoan**

**Hezwuntza Zinloan**

2 urtetik 18ra





# **IGORREKO** JAIK 2023

Ekainak 9tik 18ra



# Jaietako sasoia indartsu hasteko moduko egitaraua prestatu dau Igorrek

Umeentzako jolasak, lehiaketa gastronomikoak, kuadrillen arteko olinpiadak, pelota partiduak, errugbia, antzerkia eta, zelan ez, kontzertuak dagoz, beste gauza askoren artean, Igorrek prestatu dauan hamar eguneko jai egitarauan.

**Erredakzinoa**

Zapatu bietan, hilak 10 eta 17, herrietara bueltetako autobusa egongo da 02:30ean eta 05:00etan, autobus gerezalekuan. Lehenengo zapatuan, The Arratians, Skabidean, Trikizio eta Karibe Mix taldeek eskainiko dabe kontzertua, eta bigarrenetan, Mumia, Kilimak eta dj Jotatxok. Bariku gauetan be egongo dira kontzertuak: Huntza eta Zirkinik bez taldeek hilaren 9an joko dabe, eta Arene 6, J Martina eta Altxa Porruren txandea izango da hurrengo barikuan.

**Bagilak 9, barikua**

17:00etatik 20:00etara, Saharais en Arratia alkarteak egingako jakien dastaketea, Goiko Plazan.  
17:00etatik 18:30era, ume eta gazteentzako jolasak Zaztapa-rrakaz, Goiko Plazan (umeak familiaren ardurapean egongo dira).  
18:30ean, euskal jantzak ume zein helduentzako, Arantzarteren eskutik, Goiko Plazan.  
18:55ean, argazki herrikoia udal-letxeko balkoitik.  
19:00etan, txupinazoa, Arratia Ziklista Elkarteko kide ohien eskutik. Bitartean, Jubilatuen Elkartek prestatuko dauan merienda.  
Ostean, Larraín dantza Arantzartegaz, Goiko Plazan.  
19:25ean, kuadrillen argazkia, Goiko Plazako frontoiko harmailetan.  
19:30ean, kuadrillen arteko olinpiadak: herri-kirolak.  
20:00etan, Ardoa barrura txarangea, Goiko Plazan hasita.  
23:00etan, kontzertuak: Huntza eta Zirkinik bez.

**Bagilak 10, zapatua**

08:30ean, ermitetatik kantu-birea Jubilatuen Elkartegaz, jubi-

laduen txokoa hasita.  
12:00etan, Paella Txapelketea, txosnagune ondoko landan. Paella aurkezten daben guztientzat sorpresatxo bat egongo da. Saria: paellarik onenari euskal produktuen otzara bat.  
12:30ean, beterranoen arteko futbol partida Urbietela zelaian, Gurutze Gorriak antolatuta. Arratia-SD Amorebieta.  
14:30ean, paellen aurkezpena.  
17:00etatik 19:00etara, umore eskalduna: Katuska eta Katilu, Galtzagorri eta Zuztertxu paella gunean.  
18:30ean, Ostikada elektrotxarangea.  
20:00etan, Luis Iruarizaga eta Atxaspe abesbatzak, Kultur Etxean.  
22:00etan, kontzertuak: The Arratians, Skabidean, Trikizio eta Karibe mix.

**Bagilak 11, domekea**

12:00etan, gazteen eskupelota partiduak, Goiko Plazako frontoian.  
17:30ean, Arantzarte eta Kittu taldeagaz kalejireia.  
18:00etan, Arantzartegaz jantza emonaldia, Goiko Plazako frontoian. Animau baserritar jantzita etorten!

**Bagilak 12, astelehena**

Umeen eguna barraketan  
10:00etan eta 11:30ean, *Eneko eta Ixabel* antzezlanak, Kultur Etxean, Igorreko eskolako umeentzat.  
17:00etan, ume eta gazteentzako jolasak Zaztapa-rrak Asti Taldearen eskutik, Lasarte parkean hasita (umeak familiaren ardurapean egongo dira).  
19:00etan, Arratia Musika Eskolako konboen emonaldia, txosnagunean.

**Bagilak 13, martitzena**

10:00etatik 12:00etara, ume eta gazteentzako puzgarriak eta arpegi margoketea Panpotxen eskutik,



Lasarte parkean. Jai Batzordeak eta AMEK antolatuta (umeak familiaren ardurapean egongo dira). Gazteentzako jolasak Maratukoakaz, Lasarte parkean hasita, (5. mailatik gorakoentzat).  
12:00etan, bits-festa, Lasarte parkean (umeak familiaren ardurapean egongo dira).  
12:30ean, mezea. Ostean, Musika Eskolako trikitilariakaz kalejireia.  
15:30ean, Mus Txapelketan izen-emotea, Bidebarrin.  
16:00etan, Mus Txapelketearen hasikerea. Ondoren sari banaketea.  
18:00etan, *Jule* antzezlanak, Goiko Plazako frontoian.

**Bagilak 14, eguaztena**

16:00etatik 18:30era, umeen playback-a, Lasarte parkean. Igorreko Guraso Elkartearen eskutik.  
17:00etatik 19:00etara, Musika Eskolako emonaldia, Kultur Etxean.  
19:00etatik 21:00etara, Zunba, txosnagunean.

**Bagilak 15, eguena**

Umeen eguna barraketan  
17:00etan, neskatxien pala parti-

duak, Goiko Plazako frontoian.  
18:00etan, Astrapalea rock esko-learn emonaldia, txosnagunean.  
19:00etan, karropoteoa, herrian zehar.  
21:00etan, kuadrillen afaria, txosnagunean.  
Adi!: Txartela aurkezten ez dabenek, ez dabe ez aulkirik ez lekuri- izango. Kontrol bat egongo da hori beteteko. Txartelak Kukuman eta Herrikoan salgai (18€). Azken eguna: bagilak 10.  
(\*Alergiarik, intolerantziarik edo bestelako menu-rik behar izan ezker- o, idatzi *igorrekojaiek@gmail.com* helbidera bagilearen 10a baino lehenago).  
Mozorrotuteko gaia: Marrazki bi- zidunak. Ostean, Bingo trabestia eta DJ Isma.

**Bagilak 16, barikua**

11:00etan, eskolako triatloia.  
17:00etan, Saharais en Arratia alkarteak egindako jakien dastake- tea, txosnagune ondoko landan.  
17:00etan, Patata-tortilla Txapelketea, txosnagune ondoko landan (tortillea kipuladuna edo- kipulabakoa izan ahal da. Aurkeztuten dan tortilla bakotxeko 4€ ordaindu beharko da). Tortillea aurkezten daben guztientzat sorpresatxo bat egongo da. Saria: Patata-tortillarik onenari euskal produktuen otzara eder bat.  
17:00etan, trikitilariak, Etxebarria aita-semeak.  
19:30ean, tortillen aurkezpena.  
22:30ean, kontzertuak. Arene 6, J Martina eta Altxa Porru.

**Bagilak 17, zapatua**

09:00etatik 14:00etara, Andrazko Alebilen Futbol Txapelketea, Urbieta zelaian.  
14:00etan, herri bazkaria, eskole-

tako aterpean.  
Adi!: Txartela aurkezten ez daben helduek edo umeek, ez dabe ez aulkirik ez lekuri- izango, janaria etxetik eroan beharko dabe eta "paseoko sillan" edo senideen altzoan jesarri beharko dira. Kontrol bat egongo da hori beteteko. Txartelak Gau Lora eta Jubiladue- nean salgai. (Nagusiak 20 euro, umeak 12 euro, 14 urterarte). Eroste-ko azken eguna: bagilak 12. (\*Alergiarik, intolerantziarik edo bestelako menu-rik behar izan ezker- o, idatzi *igorrekojaiek@gmail.com* helbidera bagilaren 12a baino lehenago).  
16:00etan, Bizkaiko Rugby Txapelketea, txosna ondoko errugbi zelaian.  
17:30ean, rally umoristikoa, eskoletan hasita.  
19:00etan, herri-kirolen emonaldia, Lasarte parkean, bagilak 19rar- te, Igorreko Kultur Etxeko Erakus- keta Gelan, Gartzén Martínez Sagarna igorreztararen, *Herri argia - Baserriko lanetik, gaurko kirolaria* argazki erakusketeari lotuta.  
22:00etan, kontzertuak: Mumia, Kilimak, dj Jotatxo.

**Bagilak 18, domekea**

10:00etatik 14:00etara, puzgarriak eta jokoak kiroldegian, Gurutze Gorriaren eskutik.  
14:30ean, jubiladuen bazkaria, eskoletako aterpean.  
18:30ean, Gauargi taldeagaz erromeria AMEren eskutik, Lasarte parkean.  
19:00etan, jubiladuen karta txapelketetako sari banaketea, Lasarte parkean. Bitartean, kuadrillen arteko sari banaketea online (Saria 200€ bonoetan). Amaitu- teko, 19:30ean, txokolatea AMEren eskutik, Lasarte parkean.

Graduazinoak  
Ikusmen terapia  
Ikusmen gibusua  
Begiko tentsinoa  
Lentillen adaptazinoa  
Kiroletarako betaurrekoak

Sabinu Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)  
Tel: 94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

Lahendakort Agirre 10 - IGORRE (Bizkaia)  
Tel: 94 673 43 81

HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA

*Blitzn daga jaitziz*

- Salmentan zein dotaruan
- Lurrik (erakutsia, landak, basoak...)
- Etxebizitzak (puzak, basoak, etxak...)
- Garaioak
- Lokar komertzialak
- Publikoak...
- Balonazkoak

*Baina daga proiektu*

- Irakin berria erakitzeko
- Ereformen
- Arkitekto-proiektuak
- Same diseinua
- CEE eta ITE-ak
- Hirigintza aholkularitza
- Negozioak irekitzeko
- kudeaketa

Lahendakort Agirre 10, Sabinu - Igore  
Nagusia 14 657 70 03 - 45 94 35 31  
24 777 11 11 - 24 777 11 11  
arratia@arratia.com

Juridikoa - Fiskala - Lanekoa - Kontularitza

Askatasun 26, 1B - 48143 Areatza  
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82  
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com



# Huntza taldearen kontzertua egongo da jaietako lehenengo bariku gauean

Azkena balitz bezala izenpean, Huntza agur esateko bira egiten dabil. Agur kontzertu horreetako bat Igorreko jaietan izango da, barikuan, hilak 9, 23:00etan.

## Erredakzinoa

Huntza 2014an sortutako taldea da, sei gazte gipuzkoarrek osotuta. Taldearen lehen agerpena 2016ko martiaren 8an izan zan, *Harro gaude* kantua plazaratuz. Bertan, oholtaza gainera salto egin eben lehen andrak omentzen dira. Lau bildumek osotuten dabe euren diskografia, *Ertzetatik*, *Lumak*, *Xilema* eta *Ezin ezer espero*, eta hainbat bideoklip, *Haizeak*, *Buruz behera* edo *Lasai, lasai* tartean.

## Azkena baliz bezala agurre-rako kontzertuak

"Nondik hasi: Ez da-ta erraza bidea eten egingo dogula esatea. Baina hori eskatzen deus-

kue, bihotzak baino, buruak eta gorputzak. Asko bizi izan dogu alkarregaz. Nork esango euskun horren ederra izango zala Bilboko Alde Zaharrean hasitako bidea, Euskal Herri osoan barrena edota euskerea entzuten ez dan txoko askotara eroan gaituan bide hau. Eta bidelagun, zuek guztiak. Hori ederrena, edo gehien asebate gaituana. Baina bide orok nekea be eragiten dau, aldapen gorabehera horretan. Arnasa hartu eta indarbaritzeko astia behar dogu oin" azalduten dau Huntzak bere agurrerako komunikaduan. Eta zelan amaitu "badakigu: geratzen jakun kontzertu bakotxa azkena balitz bezala gozatuz. Zuokaz guztiokaz, eta zuontzat guztiontzat".



# Arratia eta Amorebieta futbol taldeetako beteranoek partidua jokatu dabe Gurutze Gorriaren alde

Bagilaren 10an izango da partidua, 12:30ean, Igorreko Urbieta zelaian. CD Arratiak eta SD Amorebietak jokatu dabe.

## Erredakzinoa

Martian hil zan Arratiako Gurutze Gorriako (AGG) presidentea izan zana Juan Mari Aizarnari omenaldi-txoa be izango da partidua eta aurraskua jantzatu eta bere familiari opari bat egingo deusie AGGkoek. Talde bietako erretirautako jokalariek jokatu daben partidugaz, Arratiako proiektuetarako dirua batu gura dau Gurutze Gorriak: baliabide ekonomiko gitxiko gazteei etxeko lanak egiten lagundu, gaztelarazko

klaseak etorkinentzat, osasun zentrorra joateko laguntzea edo estimulazino kognitiboa proiektuetarako, hain zuzen be. Diruz lagunduteko modu bi dagoz: bost euroko prezioa daukien partidurako sarrerak erosiz edo erifak, erosita. Baina partiduen helburua ez dala bakarrik dirua batzea dinoe AGGtik, "boluntarioak behar doguzanez, partidu honen bitartez gure proiektuetan parte hartzeako jentea erakarteko modu ona dala uste dogu".

# Txosnagunea neskentzako espazio segurua izan daiten, gune moreak eta erasoen kontrako prokoloa egongo dira

## Erredakzinoa

Igorreko Udalak eta Orratzak talde feministeak, gune moreak eta eraso sexisten kontrako protokoloak ipiniko dabez martxan txosnagunean, erasoak saihesteko eta eraso gertatu ezker, protokoloa abiatu eta erantzuna emoteko. Eraso bat gertatu ezker, helburua biktimeari -eta ez erasotzaileari- babesa emotea da.

Igaz ezarri zan lehenengoz Orratzak taldearen protokoloa. "Jaietan sexu eraso, eraso lgtb-fobo, errazista... asko sufriduten dira, eta hori jasan ezina eta onartezina da. Gure espazioak osasuntsu, seguru, eroso eta askeak bilakatu gura doguz eta horregaitik txosnagunea eta herria, guztiona eta guztiontzako izatea aldarrikatuko dogu. Ha-ta guzti be, badago iges egiten deuskuezan gauza asko, oindino ikusten doguzalako erasoak, bortxaketak, talde erasoak, jipoiak.. emoten dirala. Horregaitik, guk eraso horreen aurrean zer egingo dogun protokolo honetan aurkeztuko dogu" irakurri eitekean igazko protokoloan.

Igazko esperientziatik abiatuta eta herritarraz alkarlanean dabil protokoloa egiteko beharrean. "Aurten gura izan dogu, hasieratik herrira zabaldu eta herriko neska gazte guztiek parte hartzea lan honetan. Gizonek parte hartu ahal dabe kartelak egiten, audioak egiten eta holango lanak egiten, baina protokoloa Orratzak-ek eta herriko neska gazteek osotuko dogu".

Informazinoa emoteko, gune moreak be ipiniko ditu Udalak, protokoloagaz buztartuta eta Arratiako Udalen Mankomunitateak, gune honeetako materialak ipiniko ditu; hau da, karpa, materiale eta irudi grafikoak, eta abar.

teak, gune honeetako materialak ipiniko ditu; hau da, karpa, materiale eta irudi grafikoak, eta abar.

## Erasoei erantzuna

Txosnagunean, neska talde batzuk egongo dira gau osoan, eraso bat gertatu ezker, eraso jaso dauanari arretea emoteko. "Horreen lana izango da erasotuagaz egotea, jagotea, eta erasotuak gura dauana egitea. Erasotuak gura badau erasotzailea txosnagunetik bota, botako dau; ez badau gura, ez dau botako; salatu gura badau, salatuko dau eta ez badau gura salatu, ez dau

salatuko. Bere nahietara joango da gure protokoloa eta berak gura badau "A", "A" egingo dau" azaldu deutso BEGITORI Amaiur Irazabal Korta Orratzak taldekoak.

Kuinak be egongo dira. Aurreko urtean egon zan prebentzino kuina bat, esaten ebana kaleak gureak dirala. Beste kuina bat egon zan, eraso bat gertatu zala esaten ebana. Kuina hau ipinten zanean, txosnak zarratuten ziran eta ez zan zerbiduten. Aurten be, asmoa hori dala, baina protokoloa ez dagoala zarratuta eta oindino badagozala adostu beharreko gauzak dino Orratzakekoak.

### IGORREKO JAIETAKO ERASOEN KONTRAKO PROTOKOLOA

**"BIOLENTZIA PATRIARKALAREN AURREAN AUTODEFENSA FEMINISTA DA GURE ARMA!"**

Gaur egun bizi garen sistema zisheteropatriarkal zuri kapitalistan etengabe erasotuek gara; genero, arraza, klase, lgtb kolektiboan parte izileagatik... Hau onartezine denez, Igorreko jai seguru eta erosoan apustue eiten dogu protokoloa feministak martxan ipinten:

- Egun bakoitzean (Ekainak 10,11,16,17 eta 18) protokoloaz arduratuko diren 5 pertsonaz osatutako brigadak egongo dire (2 arduradun eta 3 laguntzaile).
- Turnoak 22:00etatik 8:00etara egongo dire. (\*telefonoz deitu)

**1. ZER IN ERASO BAT IKUSI EDO SUFRITAN BADOGU?**

- Brigadakoek eta herriko jende gehiagok besoa zinta more bat eroango dabe, haiengana jo zeozer gertatu ezker.
- Ernaiko txosnara joan, protokoloan parte den nonor behar izitekotan horra jo zeinkie be.
- Bestela, gau osoan zehar martxan ibiliko dan telefonora deitu: 645 421 088

**Neska\* gazteek protokoloa feministak martxan ipini arren zuen erantzunkizuna da jai seguruak bermatutea, zuona GIZONAK! Zuok zarie errudunek, ardureak ezin dau segidu zapalduengan jaustent!**

# Hileko lehenengo astegoienean ospatuko ditue Gezalako jaiak

## Erredakzinoa

Bagilaren 2 eta 3an, ospatuko ditue auzoko jaiak Igorreko Gezala edo Basauntz auzoan. Pelikula emonaldiak, pailazo ikuskizunak, paella eta tortilla lehiaketek eta Fan & Go taldeagaz erromeriak osotuten dabe, besteak beste, jai egitaraua.

## Bagilak 2, barikua

21:30ean, *Nora* filmaren emonaldia plazan. Ikusleen artean txokolatea eta bizkotxoak banan-

duko dira.

## Bagilak 3, zapatua

11:30etik 12:00etara, Paella eta Tortilla Lehiaketetarako izen-emotea. 12:00etan, umeentzako tailerrak. 14:00etan, tortillen aurkezpena. 14:30ean, paellen aurkezpena. 16:00etan, Briska eta Mus Txapelketetarako izen-emotea. 16:30ean, Briska eta Mus Txapelketak. 17:00etan, Antxo eta Pantxa pailazoen *Gurekin konektatu*



umeentzako ikuskizuna. 19:30ean, erromeria Fan & Go taldeagaz. Ostean, parrilladea bertan dagoan jentearentzat.






**IGORREKO JAIETAN  
ERRESPETUZ GOZATU**

**IGORREKO JAIK 2023**  
Ekainak 9tik 10ra



**IGORREKO UDALA**

Zure gigak zeureak dira.  
Badena bada.

**GIGA METAGARRIAK**

Zuntza


**600**  
Mb

Mugikorra

**20**  
GB

**42** € hil

**IRAUNKORTASUNIK  
GABE**



**Arratek Informatikan** Guuk-en alta ematen baduzu,  
**20 €-ko opari-txartel bat eskuratuko duzu.**

📍 Elexalde kalea 2, Igorre  
☎ 946011772



**guuk.**

**ZUNTZA MUGIKORRA AGILE TV**

Sustapen honek 2023/06/01etik 2023/07/31ra bitartean Arratek informatikan zuntza eta mugikorra kontratatzen dituzten bezero berrientzat balio du. Linea aktibatu ondoren, 20 €-ko opari-txartel bat banatuko zaie dendan bertan.





 mediku naturista  
argaltzeko terapia  
kosmetika naturala  
elikagai biologikoak  
zelakoentzati elikagaiak  
estebiziena



# AREATZA MUSIK & BEER

MUSIKA & GARAGARDO FESTA INTERNAZIONALA · INTERNATIONAL MUSIK & BEER FESTIVAL

2023 · AREATZA · EKAINAK 2 ETA 3 JUNE · BIZKAIA



**ARRASTIAN 19:00ETATIK AURRERA · AFTERNOON AT 19:00**

**2**  
OSTIRALA  
FRIDAY

- + **EDGAR BLUES TRIO** (KATALUNIA)
- + **LA PERRA BLANCO** (ANDALUZIA)
- + **HENRIK FREISCHLADER** (ALEMANIA)
- + **ERIC STECKEL** (USA)

**KALLARTEAN**

**GOIZEAN HASITA 12:00-18:00**

**3**  
LARUNBATA  
SATURDAY

**JATEKOA ETA EDATEKOA · FOOD AND DRINKS**

· DANDO LA BRASA ·  
· MAFALDO

· KAITXO TXOKOLATEAK ·  
· CRISLA SWEETS

· AMA TXO GAZTA ·  
· TXP TXOMIN PARRILLA

- + **BOB WAYNE & THE OUTLAW CARNIES** (USA)
- + **JAMES ROOM** (EH)
- + **BASEMENT SAINTS** (SUITZA)

**ARRASTIAN 18:00ETATIK AURRERA · AFTERNOON AT 18:00**

**3**  
LARUNBATA  
SATURDAY

- + **LOS RETROS** (EH)
- + **ATRACO** (MADRIL)
- + **KOMODOR** (BRETAGNIA)
- + **BASEMENT SAINTS** (SUITZA)
- + **KORITNI** (AUSTRALIA)
- + **DJ ALAI**

CRAFT BEER · GOOD MUSIC · FOODTRUCKS · MARIDAJEA · KUPEL JAURTIKETA







+MORE INFO+

 AREATZA MUSIK & BEER  






















**UDAL HAUTESKUNDEAK**

***EAJk, Artea, Bedia, Igorre eta Lemoako alkatetzak lortu ditu, EH Bilduk Arantzazu, Areatza, Dima, Zeanuri eta Zeberiokoak eta Ubiden Herri Kandidaturak irabazi dau***

Maiatzaren 28ko Udal eta Foru hauteskundeetan, BEGITUren eremuan, EAJk 2019ko hauteskundeetan baino 108 boto gehiago jaso ditu eta EH Bilduk 351 gitxiago; Hego Euskal Herri mailan gertatukoaren alderantzizko joeran. Izan be, Hego Euskal Herri mailan, EAJk behera egin dau eta EH Bilduk gora.

**Erredakzinoa**

Jeltzaleek, Igorre eta Lemoa, eskualdeko herririk jentetsuenak, berreskuratu dabez hamasei eta hamabi urteren ostean, hurrengo hurrengo; EH Bilduk, barriz, Dima, Zeanuri eta Zeberio. Zea-

nurin, lehenengo aldiz lortu dabe agintea EH Bildukoek; han beti agindu dabelako jeltzaleek, 1987tik 1995era EA agintean egon zanekoa izan ezik. Ubiden, Ubideko Herri Kandidaturak, udaleko bost jarlekuak lortu ditu. Beste alderdiek ez dabe

zinegotzirik lortu Arratia, Ubide eta Zeberion.

**Alkateak**

Gure eremuko alkate beterranoenak, 20 urte daroazan Aitor Sorriketa jeltzaleak, errepetiduko dau karguan. Baita, Arantzazuko Asier

Aburtok (EH Bildu) eta Arteako Alberto Intxaurreagak (EAJ). Beste herriek alkate barriak izango ditue.

Areatzan, EH Bilduk agintean segidu arren, Peru Perez de Anuzitak hartuko deutso lekukoa Asier Garciari eta Ubiden Zigor Iturriotzek Iñaki Beobideri. Bes-

te herrietan, alderdiz aldatu da aginte-makila. Holan, Diman, Jose Mari Atutxa (EH Bildu) izango da alkate; Igorren, Olatz Urkiza (EAJ); Lemoan, Esther Iturrioz (EAJ); Zeanurin, Naia Urrutxua (EH Bildu) eta Zeberion, Ekain Goti (EH Bildu).

|                  | <b>EAJ<br/>2023</b> | <b>EAJ<br/>2019</b> | <b>EH<br/>Bildu<br/>2023</b> | <b>EH<br/>Bildu<br/>2019</b> | <b>Herri<br/>Kandidatura<br/>2023</b> | <b>Plataformak<br/>2019</b> | <b>Parte<br/>hartzea<br/>2023</b> | <b>Parte<br/>hartzea<br/>2019</b> |
|------------------|---------------------|---------------------|------------------------------|------------------------------|---------------------------------------|-----------------------------|-----------------------------------|-----------------------------------|
| <b>Arantzazu</b> | <b>92</b>           | 128                 | <b>142</b>                   | 138                          |                                       |                             | <b>%81,66</b>                     | %86,9                             |
| <b>Areatza</b>   | <b>271</b>          | 262                 | <b>340</b>                   | 425                          |                                       |                             | <b>%73,91</b>                     | %82,59                            |
| <b>Artea</b>     | <b>257</b>          | 239                 | <b>179</b>                   | 158                          | -                                     | 77                          | <b>%79,62</b>                     | %85,84                            |
| <b>Bedia</b>     | <b>404</b>          | 414                 | <b>174</b>                   | 194                          |                                       |                             | <b>%70,55</b>                     | %75,66                            |
| <b>Dima</b>      | <b>395</b>          | 311                 | <b>466</b>                   | 391                          | -                                     | 242                         | <b>%76,95</b>                     | %85                               |
| <b>Igorre</b>    | <b>1.064</b>        | 1.090               | <b>928</b>                   | 1.125                        |                                       |                             | <b>%69,03</b>                     | %74,9                             |
| <b>Lemoa</b>     | <b>1.023</b>        | 828                 | <b>690</b>                   | 904                          |                                       |                             | <b>%70,74</b>                     | %83,83                            |
| <b>Ubide</b>     | <b>11</b>           | 19                  | -                            | -                            | <b>54</b>                             | 77                          | <b>%73,88</b>                     | %81,2                             |
| <b>Zeanuri</b>   | <b>347</b>          | 410                 | <b>372</b>                   | 366                          |                                       |                             | <b>%75,07</b>                     | %80,73                            |
| <b>Zeberio</b>   | <b>340</b>          | 395                 | <b>351</b>                   | 293                          |                                       |                             | <b>%80,04</b>                     | %83,22                            |
| <b>GUZTIRA</b>   | <b>4.204</b>        | 4.096               | <b>3.642</b>                 | 3.994                        |                                       |                             | <b>%75,14</b>                     | %81                               |

**Bizkaiko Foru Aldundiko emaitzak**

**Erredakzinoa**

Foru Aldundietako hauteskundeak be izan ziran maiatzaren 28an, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan. Nafarroan ostera Nafarroako Parlamenturako bozketak egin ziran. Bizkaian, EAJ-PNV izan da garaile, botoen %38,41egaz, eta 23 jarleku lortu ditu. Ha-ta guzti be, 2019ko hauteskundeetan lortutakoakaz alderatu ezker, 51.000 boto baino gehiago galdu ditu. EH Bilduk oster, hamabost jarleku izango ditu, botoen %24,96gaz eta 16.150 boto irabazi ditu. Beste jarlekuak PSE-EE (8), PP (3); eta Elkarrekin Podemosen artean (2), bananduko dira.

|                  | <b>EAJ<br/>2023</b> | <b>EAJ<br/>2019</b> | <b>EH Bildu<br/>2023</b> | <b>EH Bildu<br/>2019</b> | <b>Parte<br/>hartzea 2023</b> |
|------------------|---------------------|---------------------|--------------------------|--------------------------|-------------------------------|
| <b>Arantzazu</b> | <b>79</b>           | 116                 | <b>144</b>               | 134                      | <b>%81,33</b>                 |
| <b>Areatza</b>   | <b>280</b>          | 331                 | <b>314</b>               | 315                      | <b>%74,11</b>                 |
| <b>Artea</b>     | <b>226</b>          | 245                 | <b>186</b>               | 202                      | <b>%79,42</b>                 |
| <b>Bedia</b>     | <b>365</b>          | 391                 | <b>165</b>               | 160                      | <b>%69,83</b>                 |
| <b>Dima</b>      | <b>329</b>          | 382                 | <b>505</b>               | 482                      | <b>%77,05</b>                 |
| <b>Igorre</b>    | <b>1.068</b>        | 1.182               | <b>832</b>               | 921                      | <b>%69,06</b>                 |
| <b>Lemoa</b>     | <b>959</b>          | 887                 | <b>639</b>               | 735                      | <b>%70,78</b>                 |
| <b>Ubide</b>     | <b>18</b>           | 27                  | <b>60</b>                | 68                       | <b>%69,47</b>                 |
| <b>Zeanuri</b>   | <b>341</b>          | 415                 | <b>362</b>               | 358                      | <b>%75,13</b>                 |
| <b>Zeberio</b>   | <b>334</b>          | 379                 | <b>314</b>               | 277                      | <b>%78,91</b>                 |
| <b>GUZTIRA</b>   | <b>3.999</b>        | 4.355               | <b>3.521</b>             | 3.652                    |                               |



ZEANURIKO TXISTULARIEN 55. URTEURRENA

# Zeanuriko txistulari taldeak 55 urte bete dauz

Txistulari taldearen 55. urteurren ospakizuna bagilaren 10ean izango da, 20:00etan, Zeanuriko frontoian. Oingo momentuan taldean dagozan 13 txistulariek hartuko dabe parte, baita lehenago ibilitako beste batzuek be eta Gasteizetik etorritako beste batzuek.

Erredakzioa

Txistulariez gainera, herriko koruak be kantauko dau, Gasteizeko koru bategaz batera. Esti eta Olatz, herriko kantariak be kantauko dabe eta Etzanderak jantza taldea eta metal boskotearen parte hartzea be egongo da urteurren kontzertuan Ruper Lekueren zuzendaritzapean.

Zeanuriko txistulari taldea 1968an sortu zan eta gaur egun 13 txistulari dira, 8 gizonetzko eta 5 andrazko, 40 eta 70 urte bitartekoak. "Korua sortu zan lehenengo, eta gero txis-

tu eskolak emoten hasi ziran. Eta ordutik, batzuk joan besteak etorri, gaur arte iraun dau. Garai baten tradizino bihurtu zan: Zeanurikoa izanda, txistua ikasi behar zan. Urte batzuetan herrian ume gitxi egongo zan nozono txisturik ikasi bakorik. Gero gauzak aldatu egin ziran. Oin musika eskolan ikasten dabe txistua, eta Zeanurin 3 mutiko dabiz horretan. Etorkizuna ez dator hain fuerte, antza" azaldu deutso BEGITURI Irune Zuluaga txistu taldekoak.

Oin 55. urteurren ospakizunarako beharrean dabiz buru-bela-

rri, eta ostean, 60.a prestatzen hasiko dirala dino Zuluagak.

Herri eta auzoko jaietan

Txistulariak barikuro batzean dira ensaietako eta urteak daroez herriko eta auzuneetako jaietan jotzen. "Taldekideon artean bananduta daukaguz jaiak, eta holan, txandaka, joaten gara. Santu guztiek ezetuten gaitue. Eta, oin, herrikoek bakarrik; baina sasoi baten, Igorrekoek eta Dimakoek be bai" dino txistulariak. Zeanuriko koruari lagunduten be ibiltzen dira kontzertu batzuetan.



IPINI ZURE IRAGARKIA BEGITUN

Informazinoa: 649 979 115  
eta [inigoirua@begitu.eus](mailto:inigoirua@begitu.eus)



MENDIA

50 tontor baietz! erronkea hartu dau Ganzabalek bere 50 urteurrena ospatuteko

Bagilaren 18an, Ganzabal Mendi Taldeko bazkide eta jarraitzaileek, 50 menditara igotea da erronkea. Bakarka edo taldean, edozein menditara igon eta argazkia bialdu behar da ganzabalmt@ganzabalmt.org helbidera. Mendiak ez errepetiduteko eta holan 50era heldu ahal izateko izena emon behar da aldezturik.



Erredakzioa

Partaideek opari bana jasoko dabe. Taldean edo bakarrik igoteko mendi bat aukeraturakoan, partaideek mendi hori erreserbetako izena emon behar dabe Ganzabaleko lokalean edo telefonoz. "Erronkea da ea danon artean egiten doguzan egun horretan 50 tontor. Gehiago badira, hobeto, baina gitxienez 50, 50 urte beteten doguzalako" azaldu deusie BEGITUri Ganzabaletik. Mendi edonon egon daiteke, holan, "oporretan, bidaian eta abar egon ezker be, parte hartu ahal izango da erronkan". Tontorrean argazki bat atera eta Ganzabalerara bialdu behar da.

**Urteurrena ospatuteko ekintzak**  
Bagilaren 18koa, Ganzabal Mendi Taldeak bere 50. urteurrena ospatuteko antolatu dauan ekintzetako bat da, baina ez da bakarra. 50. urteurreneko erropea, jakak, kamisetak eta leporako buffak, ipini dabez salgai. Eguaztenetan, 19:30etik 21:00etara, Ganzabaleko lokalean erosi daitezke erropek. Aprilaren 23an, Lemoako mendirik altuenean, Pagotxuetan (511 m), buzoia ipini eben Ganzabalekoek, mende erdia ospatuteko. Egun bi lehenago, aprilaren 21ean, La huella de Karim do-

kumentala proiektatu zan Igoerreko Kultur Etxean eta bertan egon ziran Alex Txikon alpinista lemoaztarra; Sebastián Alvaro, *Al filo de lo imposible* telebista saioko sortzaile eta zuzendaria, eta Juanjo San Sebastian eta Jose Carlos Tamayo alpinistak.

**50 urte**  
Asko izan dira mendi taldea zoriondu gura izan dabenak, euren artean, Saioa Elejabarrieta Lemoako alkateak edo Euskal Herriko momentuko alpinistarik onenetakoa dan Alex Txikon. "Hainbat balore transmitidu deusazue Lemoari 50 urte luze honetan: naturagazko errespetua, gure inguruneagazko ezagutzea, aisialdi osasuntsu eta euskalduna, askorentzako topaleku... urte askotarako!" zoriondu eban taldea alkateak. Alex Txikon be azaldu eutsan bere esker ona taldeari. "Zorionak Ganzabal Mendi Taldea! 50 urte! (1973-2023). Umetan Arratiako mendietara egin nituan lehen txangoak, zein oroitzapen onak! Eta mila esker neguko Manaslu gailurra dala-ta egindako omenaldiagaitik. Benetan hunkigarria izan zan eta, gainera, Juanjo San Sebastián, José Carlos Tamayo eta Sebastián Alvarogaz batera! Eskerrik asko!" idatzi eban Txikon Facebook-ean.

PELOTEA

Hiru txapel ditu jokoan Amaia Aldaik

Amaia Aldai pelotari dimoztarra uda aurreko txapelketak amaituten dabil eta pilotuta daukaz finalak.

Erredakzioa

Bagileko lehen aste bietan, hiru jokatuko ditu: hilaren 4an Nafarroa Foru Komunitatea Torneokoa, 8an Zaramagakoa eta 9an Biharko Izarrak Txapelketakoa. Horrezaz gain, Bergara Hiriako finala jokatuko eban maiatzaren 29an Leire Galeanoagaz, baina ezin izan ebezan Leire Garai eta Enara Gaminde garaitu, 19-22 amaitu zan partidua. Txapel bat janzteko hurrengo aukerea, hilaren 4an izango dau, Emakume Master Cupek antolatu-

tako Nafarroako Foru Komunitatea Torneoko finalean. Baina, maiatzaren 29ko bikote berberak egongo dira aurrez aurre Labriten. Beraz, Aldaik buelta emon beharko deutso aurreko emaitzeari. Gero, egun batzuk deskantsau eta bagilaren 8an, Zaramaga Txapelketako finala jokatuko dau Gasteizen. Naroa Agirre izango da bere bikotea baina aurkariak ebatzi barik dagoz oindino. Aldai eta Agirre, finalaurrekoan Bergara eta Osesen aurka 22-10 irabaztetik datoz. Hurrengo egunean barriz, Mallabiako Biharko Izarrak Banakako Txapelke-

tea jokatuko dau, hau be Enara Gaminderen kontra.



Amaia Aldai.

**2023ko JAIETATIK ETXERA BUELTATZEKO AUTOBUSA**

Zerbitzu hau ARRATIako udaletako, AMOREBIETA-ETXANOKo eta GALDAKAKo garzteei zuzenduta dago.

|                                                                                                                                                                            |                                                                                                                                                                   |                                                                                                                                  |                                                                                                                                     |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>IGORREKO SAN ANTONIOAK</b><br>NOIZ: Ekainaren 10ean (Larunbata)<br>Ekainaren 17an (Larunbata)<br>ORDUTEGIE: 2:30etan eta 5:00etan<br>NON: Autobusen paradan             | <b>BEDIAKO SAN JUANAK</b><br>NOIZ: Ekainaren 24an (Larunbata)<br>ORDUTEGIE: 2:30etan eta 5:00etan<br>NON: Autobusen paradan                                       | <b>ARANTZAZUKO SAN PEDROAK</b><br>NOIZ: Ekainaren 30ean (Ostirala)<br>ORDUTEGIE: 3:30etan<br>NON: Autobusen paradan              | <b>DIMAKO SAN PEDROAK</b><br>NOIZ: Uztailaren 7an (Larunbata)<br>ORDUTEGIE: 2:30etan eta 5:00etan<br>NON: Autobusen paradan         |
| <b>AMOREBIETA-ETXANOKO KARMENAK</b><br>NOIZ: Uztailaren 15ean (Larunbata)<br>Uztailaren 22an (Larunbata)<br>ORDUTEGIE: 2:30etan eta 5:00etan<br>NON: Ambulatorioko paradan | <b>LEMOAKO SAN INAZIOAK</b><br>NOIZ: Uztailaren 29an (Larunbata)<br>ORDUTEGIE: 2:30etan eta 5:00etan<br>NON: Korreosen ondoan                                     | <b>ZEANURIKO ANDRA MARIAK</b><br>NOIZ: Abuztuaren 12an (Larunbata)<br>ORDUTEGIE: 2:30etan eta 5:00etan<br>NON: Autobusen paradan | <b>AREATZAKO SAN BARTOLOMEAK</b><br>NOIZ: Abuztuaren 25ean (Ostirala)<br>ORDUTEGIE: 2:30etan eta 5:00etan<br>NON: Autobusen paradan |
| <b>ARTEAKO ANDRA MARIAK</b><br>NOIZ: Irailaren 8an (Ostirala)<br>ORDUTEGIE: 2:30etan eta 5:00etan<br>NON: Autobusen paradan                                                | <b>GALDAKAKO SANTAKURTZAK</b><br>NOIZ: Irailaren 9an (Larunbata)<br>Irailaren 16an (Larunbata)<br>ORDUTEGIE: 2:30etan eta 5:00etan<br>NON: Galdakaon Plazakoetien |                                                                                                                                  |                                                                                                                                     |

Arratiako Udalen Mankomunitatea  
Gazteria Artoa Area de Juventud  
Galdakako Udala



FUTBOLA

# Gizonezkoen Arratia A taldeak lehen postuan amaitu dau ligea

Erredakzinoa

Gizonezkoen Arratia Ak eta Bk eta Lemoako Harrobik joandako astegoienean jokatu ebezan ligako atzen partidua, Arratia Ak lehen postuan amaitu dau eta Ohorezko Mailara igotea lortu dau. Lemoako Harrobik seigarren postuan amaitu dau Lurraldekoa Lehen Mailan eta liga bereko Arratia Bk bederatzigarren.

Arratia A

Maiatzaren 28an jokatu eban ligako atzen partidua Arratia Ak Basconia B taldearen kontra etxetik kanpo eta 2-0 galdu eban. 34 jardunalditan Arratiak 68 puntu lortu ditu liga honetan.

Arratia B

Maiatzaren 27an jokatu eban Arratia Bk Ugao taldearen kontra atzen partidua etxetik kanpo. 1-4 irabazi eban Arratia Bk eta bederatzigarren amaitu dau ligea 46 puntugaz.

Lemoako Harrobi

Maiatzaren 27an jokatu eban Lemoako Harrobik Mungia A taldearen kontra atzen partidua etxetik kanpo. 2-3 amaitu zan partidua eta Lemoako Harrobik seigarren amaitu dau ligea 61 puntugaz.

Andrazkoen Arratia A eta B

Andrazkoen Arratia A eta B taldeek oster maiatzaren bigarren astegoienean amaitu ebezan euren ligak. Arratia A Kopea jokatuko dauan zain dago.



amorrrortu  
taberna - jatetxea - ostalua



OSTATUA

638 712 523

Zubieta 1, • 48130 LEMOA - Biskaia  
www.alojamientolemona.com  
info@alojamientolemona.com

MENDIA

# Natura eta kirolariakaz konpromiso etikoa bultzatzeko sortu da Etiketa Berdea

Mendi lasterketek beste bilakaera bat euki behar dabela pentsetan daben lasterkari eta lasterketa antolatzaile talde batek, Etiketa Berdea sortu dau, hainbat balore etikodun lasterketak identifiketako eta ahaidetzeko.

Erredakzinoa

Etiketadun lasterketen helburu nagusia, natura zaintzea eta errastu ekologikoa gixitzea da, eta lasterkari guztiek trataera bardina izateko eta alkarbizitza ona bultzatzeko konpromisoa hartzean dabe. Izan be, Etiketa Berdea alkarbizitzan, bardintasunean eta jasagarritasunean oinarritutako lasterketen aldeko konpromisoa da.

Labelaren sortzaileek atzen urteotan gizarteak eraldaketa bat surfridu dauala sentiduten dabe. Euren artean dago Gotzon Idirin Zeanurikoa eta Gorbeia Suzien lasterketearan sortzaileetakoak. "Azkarrago bizi gara eta honek sarritan norbanakoa gizarte eta komunitatearen aurretik ipintea ekarri dau. Indibidualismoak indarra hartu dau eta aldaketa honek kirolean be igarri dira" dinoe etiketearen sortzaileek manifestuan. Eta mendi lasterketa batzuetan, bideko lasterketa baten balegoz lez, eta lehia naturearen aurretik ipiniz, edozein gauza balekoa dala pentsetan dabela kirolari edota antolatzaile batzuek dino Idirinek. "Lehen, korrika ibilten ginanok, mendizaleak ginan eta beti euki doguz presente mendizaletasunaren baloreak: alkartasuna, enpatia, natureagazko errespetua... Eta gaur egun ikusten doguna da lehiak pisu handiegia hartu dauala eta balore horreetako asko alboratu egin dirala".

Dekalogoia euskeraz, gaztelaniaz, ingelesez, frantsesez, katalanez, galegoz eta zeinu hizkuntzan zabalduko dabe.

Beste lasterketa mota bat, posible dalako

Etiketa Berdea kode etiko bateri lotuta dago, eta hori kode etikoori beteteko konpromisoa hartzean dauan mendi lasterketa edo martxeari emoten deusie. Hainbat dira daborduko, lasterketearen kartelean, identifikatzaile hori daukienak: Ubidestroi Trail, Sorginen Lasterketea, Euskal Herria Mendi Erronka, Zaldibiko Mendi Martxea, Trikuharri Mendi Lasterketea, Triku Trail, Txindoki bertikala, Beriaingo bertikala, Urdaibaiko Kopa eta Ondarroako Tontorramandiko Mendi Lasterketea, beste batzuen artean.

Greenwashing, garbiketa berdea edo kanpoberdea egitearen arriskuaz jabetuta, zera dino Idiri-



nek: "Oso modan dagoan gaia da eta ez dogu gura inork hau arpegia garbitzeko erabilerik, edozer gauza ez da berdea, etiketa honek konpromiso bat eskatzen dau".

Mendi lasterketa eta mendi martxak jentetzak mobiduten dabez eta mendi tontorretara ehunka persona igoten dira euren idoloak ikusteko. "Gu ez gagoz lasterketa erraldioen kontra baina bai uste dogu beste lasterketa mota bat eta kirol honen beste eboluzino bat posible dirala". Profesionalizazioak kalte egin leikela dino Idirinek, "hau be kirola da, baina kontestuak egiten dau desbardin".

## Dekalogoia

Dekalogoaren puntu nagusi batzuk:

1. Natura zaintzea eta aztama ekologikoa gixitzea da helburu nagusia.
  - 1.1 Parke Natural batetik, Naturagune Babestu batetik (NB) edo ekologikoki zaurgarria dan ingurune batetik pasetan diran parte-hartzaile kopurua gehienez be 500 personakoa izango da. Teknikariak kopurua murriztea ebatziko balebe holan egingo da.
  - 1.2 Probearen ibilbidea Parkeko edo Diputazinoko teknikariakaz eta basozainakaz adostuko da beti be zaurgarri diran eremuak eta babesgune bereziak ibilbideetik kanpo itxiz edota handik igarrotea ahalik eta gehien murriztuz.
  - 1.3 Antolakuntzeak beharrezkoak diran ibilgailuak bakarrik baimenduko ditu ibilbidean zehar eragin ekologikoa gixitze aldera.
  - 1.4 Ibilbidea probearen aurreko egunean markauko da eta probearen biharamunean beran-

- duenez batu.
- 1.5 Ibilbidea markatzeko erabiliko diran materialak biodegradagarriak izango dira. Plastikoa ekologikoa, kartoipapera, konpostagarriak...
  - 1.6 Antolakuntzearen ardura izango da ekologikoki zaurgarrienak diran eremuak zaintzea. Ikusleei leku honeetan ez pilatzeko aholku irmoa luzatuz.
  - 1.7 Anoaguneetan gaikako bilketak egingo da eta ahal dan guztia birziklatzea bermatuko da.
  - 1.8 Parte-hartzailearen bat ingurunea kaltetzen ikusi ezker jarraian probatik kaleratzea suposatuko dau.
  - 1.9 Kontu guztiak itxi eta gero lasterketeak irabaziak eukiko baleuz honen %7 herriko naturagune edo inguruko PNaren onura ekariko dauan proiektu baterako bideratuko da.
  2. Korrikalari guztiek trataera bardina izango dabe.
    - 2.1 Korrikalariak ez jakie lasterketetara etorteagaitik ordainsari "finko"rik emongo. Antolakuntzeak hala ebatziko baleu konbiteak luzatu ahaliko ditu, hau da, dorsal batzuk oparitu lasterketearen promozinorako.
    - 2.2 Eliteko korrikalari deritxanek ez dabe pribilegiarik eukiko. Ez dabe sailkapen, ibilbide edota sari desbardinik izango. Beste txapelketa bateko rankingaren sari banaketea suertatzen dan kasuan, zirkuituak berak bere gain hartu beharko ditu sarien zenbatekoak, ez lasterkari herrikoiek bere dorsalaren bidez.
    - 2.3 Sariak orotara ez dabe 3.000 euroko langa gaintutuko.
    - 2.4 Dorsal bat lortzea ekonomikoki guztiontzat eskuragarri izan daiten beronen salneurria km bakoiteko 0,5 eta 1,5 euro bitartekoa izango da.
      - 2.4.1 Kilometro bertikalen kasuan, ibilbidearen ezaugarri teknikoak kontuan izanda, arau hau salbuesita egongo da.
    - 2.5 Azken korrikalariari lehenari besteko errespetua zor jako. Kontrol denpora tarte barruan datorelarik, ez da atzen hau sartu arte denpora etengo, arkurik batuko ezta balizarik kenduko.
    - 2.6 Ez da ideologia, sexu edo identitateagaitik korrikalariak gixiagotuko edo baztertuko.
    3. Lasterketa etiko honek alkarbizitza baikor bat bultzatuko dabe.
      - 3.1 Alkartasuna eta kiroltasuna. Beharizanean dagoana laguntzea derrigorrezkoa da.
      - 3.2 Aniztasuna. Gizartearen zein lasterketa honeen helburua izan-

- go da aniztasunean aurrera egitea.
- 3.2.1 Gaur egun sailkapenak era binario baten -hau da gizon eta andra- banatuta dagozan arren ez da identitate honeetatik kanpo sentitzen dan inor baztertuko.
  - 3.2.2 Izen-emote momentuan sexu aukeran 3 laukitxo jartzea gomendatzen dabe. Gizon/Andra/Ez binarioa.
  - 3.2.3 Lasterkariak boltsan emoten dan kamisetak, "andra/gizon" beharrean "estua/zabala" izango da.
  - 3.2.5 Garaikurrak ez estereotipoak izango dira.
  - 3.2.6 Egunean zeharreko musika ez sexista izango da. Eta esatariak iruzkin sexistak edo errazistak edo kutsu politikodunak saihestuko ditu.
  - 3.2.7 Infografian, karteletan, sare sozialen edukietan... aniztasuna ikusarazoten saiatuko dira.
  - 3.3 Inklusioa. Ezgaitasun funtzionalen bat daukien kirolarien parte-hartzea eta inklusioa bultzatuko da.
    - 3.3.1 Berbaldi teknikoan zeinu hizkuntza erabiltzen ahaleginduko dira antolatzaileak.
    - 3.3.2 Ezgaitasun funtzionalen bat justifikatzen daben parte-hartzaileak %10eko beherapena egingo jakie.
    - 3.4 Jasagarritasuna. Lasterketa etikoak ahalik eta jasagarrienak izaten saiatuko dira.
    - 3.5 Errespetua.
      - 3.5.1 Lasterketa egunean beharrean daban boluntario guztiek errespetuz tratatzea merezidu dabe.
      - 3.5.2 Lasterketak basoetatik, lurreetatik... pasetan dira. Bertan bizi eta lan egiten dabenak kontuan hartuko dira.
      - 3.5.3 Korrikalari guztiek merezi dabe begirune bera.
      - 3.5.4 Ingurumenagazko errespetua, antolatzaile, ikusle eta korrikalari guztion betebeharra da.
    - 3.6 Aukera bardintasuna. Sektorik zaurgarrien aldeko neurri batzuk hartuko dira. Langabetua dan, ezgaitasunen bat erakusten dauan edo ikasle dan horri %10eko beherapena egingo jako izena emoterakoan.
    - 3.7 Norbanakoaren identitatea.
      - 3.7.1 Estatu edota berezko selektino bako nazino bateko korrikalariak bere eskubidea izango dau berau ordezkatzeko eta bere sentitzen dituan ikurrak aske erakusteko, eta honek onartuak izateko.
      - 3.7.2 Izen-emote webgunean nazino aukerea agertzen ez dan kasuetan aukera hau hutsik itxeko edo "beste bat" adierazoten dauan laukitxoak ipinteko aldarria egiten dabe.
      - 3.7.3 Antolakuntzeak bertako hizkuntza lehenetsiko dau. Gixitua dan kasuetan bereziki aldeko bultzadea emonaz.
      - 3.7.4 Ingurunean edo herriko ondare kulturala indartze eta ezagutze aldera ekintza bereziak antolatzea proposatuko da. Adibidez: artzainen lana goraiatzeko eta toponimia berreskuratzea.



LIBURUA

# Eva Perez-Pons: "Klaseak zeharkatzen dauzan kolektiboakaz egiten dauz aliantzak transmaribibollo kolektiboak"

Bere bigarren liburua argitaratu dau Eva Perez-Pons lemoaztarrek Lisipe bilduma feministan: *Erresistentziarako gorputzak: bollerak* izeneko saiakerea, hain zuzen be. Bere lehenengo liburuak, *Zaharkitze programatua* poesia liburuak, Blas de Otero-Bilbo Uria nazinoarteko poesia saria jaso eban.



Erredakzinoa

Eva Perez-Pons Andrade Lemoan bizi da, Arraibin. Ingeniarria ikasketez, Mugarik Gabeko ingeniartzan dabil beharrean idazkari, eta Pedagogia Gaitasun Ziurtagiria aterateko ikasten dabil, bere asmoa Hezkuntzan lan egitea da-ta.

**Ate handitik sartu zara literaturan, zure lehenengo liburuak Blas de Otero nazinoarteko poesia saria jaso eban eta oin, Lisipe bilduman argitaratu dozu saiakera hau.** Proposamena egin eustenean zalantzak izan nebazan; izan be, Lisipe bildumak Euskal Herri mailan oihartzun handia dauka eta oso ezaguna da. Bertigo apur bat sentidu neban, baina lanaren atalik handiena eginda neukan Ikasketa Feminista eta Generokoen masterrean, eta oingo testuingurura moldatu eta gauza batzuk gehitzea baino ez zan. Nik idatzitako liburu bat izanda be, beste hainbat persona eta talde dagoz horren atzean, eta neurri baten, genealogia hori, transmitidu gura deutset oingo gizartea osotuten daben personei.

Momentuz oihartzun oso ona euki dau liburuak, ez neban holariorik espero. **Lesbianek emakume moduan definitu izan dabe eu-**

**ren burua, andrak maite dituen andra moduan. Bollerek barriz, ez dirala emakumeak dinoe, identitate politiko bat dala bollera izatea, sexualidadeagaz zerikusirik ez daukana. Genealogiari erreparauz, horrek zer esan gura dau bollerak ez dirala lesbianen ondorengoak?** Bai lesbianak eta bai bollerak mobimentu feministatik gatoz eta uste dot moduren baten edo bestean, ibilbide bat egiten gabizala. Testuinguruaren arabera, igual, izentatzeko formak edo kontzeptuak definituteko erak aldatu egiten dira, baina nik uste, gure aurrekariak badirala lesbianak, batez be lesbiana feministak. Euskal Herri mailan, behintzat. Bollerak ez garala andrak edo ez garala zertan andrak izan, 1990eko hamarkadan Monique Wittigek eta beste pensalari batzuek, feminismo materialistatik sortu ebezan hainbat kontzeptutatik dator. Wittigek inoan lesbiana bat ez zala andra bat, politikoki edo ekonomikoki ez zalako gizon baten menpekoa, baina ez eban gizona definituten. Horrek balio izan eban homosexualidadearen esangura zurrinari beste esangura batzuk emoteko. Horregaitik esaten dogu bollera ez dala identitate sexual bateri lotutako subjektua, eta badala subjektu politikoa; hau da, ez dala bakarrik sexu praktikak

edo genitalak kontuan izaten dauan kontzeptu bat. **Zein beste kolektibokaz egiten ditu aliantzak bollera kolektiboak?** Mobimentu feministeagaz eta LGBTQ+ mobimentuagaz, jakina, baina baita klaseak zeharkatutuen dauan edozein kolektibogaz. Adibidez, Bilbo mailan, LGBTQ+ koordinadoreak eta mobimentuko kolektiboek, Etxebizitza Sindikatuek hartu-emona izan dabe. Edo gaztetxeakaz. Orduan burrukearen erdigunea ez da identitatea bakarrik, hori zabalduen dogu parekoak izan daitekezan beste burrukaz sarea sortzeako. **Hau da, identitatean baino birbanaketean, ondasunen banaketean ipinten dozue fokua?** Hori da. **Zeri egiten deutsie erresistentzia, erresistentziarako gorputzek?** Erresistentziarako gorputzak izan zan 2019ko Euskal Herriko Jardunaldi Feministetan Medeak taldeak *Gorputzak eta sexualitateak* mahai-inguruan erabili eban kontzeptu bat. Esaten dau erresistentziarako gorputz bat izan daitekela marika bat, bollera bat, persona trans bat, persona errazializaduei Atzerriartasun Legeak ez deutse ixten lan kontratu bat izaten edo osasungintzarako sarbidea zarratuten deutse, edo botoa emotea galarazo. Hau da, personea ez da zaurgarria berez, zaurgarri egiten dabe.

biolentzia sufriduteko probabilitate gehiago daukagula be esan gura dau. Gorputza da munduan egoteko daukagun gauza material hurrekoena, eta, ni joaten banaz ez-dakit-nora, igoal jipoi bat jasoteko probabilitate gehiago daukadaz lesbiana oso normatibo batek baino. Erresistentzia, zentzu horretan erabilten dogu, norma bateri aurre egiteko zentzuan. **Zeintzuk dira aurre egin beharreko arauak, bolleraren erresistentziak?** Adibidez, familia kontzeptua zelan ulertzen dan, zelango sareak daukazuzan, egoera ekonomikoa, sexu praktikak eta abar luze bat. Oin LGBTQ+ edo transmaribibollo kolektiboko batzuk oso ikusgarriak dira instituzioen esanguran, baina esangura horretan sartzean ez garanok, oin-dino ikusezinoak bilakatu gara. Orduan guk aldarrikatzen doguna da gure bizitzek be balio dabela eta norman sartzean ez diran bizitza horreek be bizigarriak dirala, eta ez dogula esangura horreetan sartu gura. **Zaurgarritasunaren gaineko atal bat dago saiakera honetan eta zure aurreko poema liburuan be, Zaharkitze programatuan, hain zuzen, zaurgarritasunak leku zentrala eukan.** Bai. *Erresistentziarako gorputzak: bollerak* saiakeran bereizketa bat egiten da. Judith Butler-en gogoetak jasoten dira esateko persona guztiak garala zaurgarriak jaioten garanetik hil arte. Etapa desbardinetan zaurgarritasun maila aldatu arren, beti gara zaurgarriak, baldintza materialak eta sare sozialak behar doguzalako biziteko. Persona bat ezin da besteak barik bizi. Adibidez, etxe baten egoteko, etxe hori baten batek diseinatu behar izan dau, norbaitek eregi... Eta ez bakarrik modu personalenean, sozialean be behar doguz beste personak. Gaur egun baina, persona zaurgarriak eta ez zaurgarriak bereizten doguz. Eta zaurgarriak badakigu dirana andrak, umeak, persona trans-ak... Kontua da kontzeptu hori gaintitu behar dala eta esan, zaurgarriak baino, -ze danok gara zaurgarriak- badagozala persona batzuk egoera prekarioagoan dagozanak. Paradigma aldatu beharra dago, fokua mobidu ikusteko badagoala sistema bat edo dana dalako bat, persona batzuei oinarritzkoak diran bizi baldintza batzuk kentzean deutesenak. Adibidez, persona errazializaduei Atzerriartasun Legeak ez deutse ixten lan kontratu bat izaten edo osasungintzarako sarbidea zarratuten deutse, edo botoa emotea galarazo. Hau da, personea ez da zaurgarria berez, zaurgarri egiten dabe.

IPUINAK

# San Juan gaua gaitzat hartuta umeentzako ipuin kontaketa musikatua egingo dabe Lemoan

Erredakzinoa

San Juan bezperea baino 9 egun lehenago, bagilaren 14an, 18:00etan, Amaia Elizagoien ipuin kontalariak eta Irati Celestino musikariak *San Juan gaua* izeneko umeentzako ipuin kontaketa musikatua eskainiko dabe Kotxepin Kultur Etxean. Saioak ordubete iraungo dau eta 3 urtetik gorako umeentzako gomendatuta dago. Elizagoienek eta Celestinok, Ameli eta xirrikietuen jostunak taldea osotuten dabe. "Gau ederra dogu San Juan gaua, espiritu txarrrak, bildurrak eta kezak gainetik kentzeako ederra da-ta. Guk badaukaguz egun honetan gertatu ziran hainbat istorio eder. Baina honeek ez doguz erreko. Honeek entzunez suaren bueltan sortzean dan goxotasuna eta berotasuna alkarbanatzen saiatuko gara" dinoe sinopsian.



LEHIAKETEAK

# Lemoako jaietako Kartel Lehiaketea antolatu dau Jai Batzordeak

Erredakzinoa

Jaietako Kartel Lehiaketan parte hartu gura daben Lemoako herriarrek, bagilaren 9ra arte aurkeztu daikiez euren proposamenak udal-etxean, 08:00retatik 14:00etara. Sari bi egongo dira 100 eurokoak. Kartelok eskuz edo ordenagailuz eginda egon daitekez, eta "Lemoako Jaiak 2023" esaldia derrigor agertu behar da. A4 neurrikoak eta orientazio bertikalekoak izan behar dira eta egilearen sinadura barik aurkeztu behar dira.



PASTORALA

Igorreko eskola-umeek  
pastorala egingo dabe  
Lasarte Aretoan

Erredakzinoa

Zeanuriko Arkaitz Estiballes bertsolariak idatzitako *Arratiako tranbia eta Eulalia Abaitua* pastorala taularatuko dabe bagilaren 2an, 17:30ean, Igorreko Inazio Zubizarreta eskolako LH5eko 52 ikaslek. Sarrerea doban izango da eta alde zurretik eskuratu daiteke Lasarte Aretoko sarreran edo Kultur Etxeko harreran.

Eulalia Abaitua Bilboko argazkilaria XX. mende hasierako Arratia eta arratiarrak emon eban ezetutera bere argazkiakaz. Estiballesek Arratiako Tranbia eta Abaituaren lana ardatz hartuta, sasoi bateko gizartea ekarri gura izan dau gogora. Lan honetan, Arratiako Tranbiaren (1899-1964) eta Eulalia Abaituaren bizitzak kurtzaturak dira hari kronologiko baten bidez. Sasoi haretako ohi-

tura, lan eta arratiarren zereginak be jasoten dira, baita XX. mende-ko gertakari esanguratsuenak be; gerrea, industrializazioa, landa eremu eta uriaren arteko dikotomia, tartean. Arratiako bai-lararentzako tranbiak izan eban garrantzia azpimarratu, eta Eu-lalia Abaituak egin eban lana be balorean ipinten dau pastoralak.

Loraldia Eskola

Igorreko Inazio Zubizarreta eta Dimako Ugarana eskolek Loral-dia Eskolako proiektuetan hart-zean dabe parte. Ikasturte ho-netan, pastoral bana egin dabe: *Arratiako tranbia eta Eulalia Abai-tua* Igorreko eskoleak bagilaren 2an egongo dana ikusgai, eta *Landatik hirira joanda etorri* Di-makoak hurrengo egunean ikusi ahal izango dana, 11:00etan, Di-mako frontoian.



MUSIKEA

Nhil taldeak  
*Bizi bagina bezala* bere  
diskoa  
aurkeztuko  
dau Kotxepin  
Kultur Etxean



Erredakzinoa

Bagilaren 9an, 20:00etan, es-kainiko dau taldeak diskoaren aurkezpen kontzertua Lemoako Kotxepin Kultur Etxean. Pop, soul eta funk estiloko 9 abesti batzean dira *Bizi bagina bezala* (2022) diskoan, hiru euskeraz eta sei ingelesez.

Taldea, Sara Alonso abeslari eta piano-jotzaileak, Beñat Arrie-ta gitarra-jotzaileak, Asel Errasti bateria-jotzaileak, Xabi Zuaza-beitia baxu-jotzaileak, Lia Garai saxofoi-jotzaileak eta Aitor Ruiz de Austri tronboi-jotzaileak osu-tuten dabe.

*Bizi bagina bezala* taldearen bigarren diskoa da; lehenengoa, *Aztarnak* izenekoa, 2020an kale-ratu eben.

BERTSOLARITZEA

Arratiar bik saria lortu dabe  
Bizkaiko Eskolarteko Idatzizko  
Bertsolari Txapelketan



Erredakzinoa

Arantzazuko Aiala Irurtia eta Dimako Enara Gallastegi bertso-lari gazteek osatu eben arratiar delegazinoa maiatzaren 27an, lehiatutako Bizkaiko Eskolarteko Bertsolari Txapelketako Ger-nikako finalean.

Igorreko kanporaketan, maia-tzaren 17an jokaturakoa, hama-bi bertsolarik hartu eben parte eta bertan lortu eben finalerako sailkatzea arratiar biek: Aran-tzazuko Aiala Irurtia, Igorreko saioaren irabazlea eta Dimako Enara Gallastegi. Finalean, beste sei aurkari izan ebezan: Kelmene Abaitua, Ixone Asategi, June Diaz,

Naioa Jaio, Maialen Lago eta Hai-zea Telleria; atzen hau izan zan txapelduna Gernikan.

Idatzizkoan arratiar bi saridun

Idatzizko txapelketan be izan zan Arratiako bertsolaririk eta hainbat arratiarrek hartu eben parte, eurentako bik saria ekarri eben Arratiara.

Idatzizko sariketako arratiar saridunak Arratia Institutuko DBH bigarren mailako Iradi Barrenetxea arteaztarra lehen postua eskuratuz, eta DBH 3-DBH 4-Batxilergoa katego-riako J.B. Eguzkitza Meabe Insti-tutuko Jasone Gabiria bediazta-rra izan ziran.

DUNBA

Etapia baten amaierera

Bizitzako zati handi bat Lemoako eskolan emon ondoren, heldu jaku DBHri amaierera emoteko, ikastetxez aldatutako eta bakoitxak bere bidea hartzeako unea.

Iraia Lekue Elguren eta Jasone Gabiria Mendiolea

Momentu eta esperientzia onak zein latzak bizitea tokau jaku. Barreak, negarrak, bildurrak eta poztasuna Lemoako ikastetxean pasau doguz urte honeetan guztietan. Gure etorkizunerako garrantzitsuak diran gauza asko ikasi doguz eta, gainera, bizitza osorako adiskideak egin doguz.

Aldaketa bat egiteko eta per-

sona barriak ezetutako gogoz lepo gagoz, baina, aldi berean, ikastetxea itxeak umezurtz itxen gaitu. Hemen oroitzapen zo-rioritsu ugari sortu doguz, bertan bizitako ibilbidea ahaztezina egi-ten dabenak.

Aurrera begiratu ezker, bi-dekurutzera heldu garala esan daikugu. Gutako askok bide des-bardinak hartuko doguz. Batzuk ikastetxe berberera joango gara batxilergoa egitera, eta horrer

esker hartu-emonetan jarraitze-ko aukerea izango dogu. Beste batzuek, barriz, beste norabide bat hartuko dabe; baina guztiok gagoz norberaren gustuko bidea ibilteko irrikan.

Amaitzeko, Lemoako ikaste-txean urte honeetan guztietan bizi izandakoa eta holan izatea posible egin daben persona guztiei, eskerrak emon gura deutseguz.





AGENDEA

BAGILAK 1  
ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura Udal Liburutegia zabalik.

19:00etan, *eRRe. Aldarri bat bertsoz* Kulturgunean.

AREATZA

Ikasgela zabalik. Aste barruan 08:00retatik 21:00etara eta astegoienetan, 09:00etatik 21:00etara.

Udabarri osoan, Gorbeia parkeko "Bide bazterrak, zelaiak eta basoak zain ditzagun!" baimendutako aparkalekueetatik kanpo ez aparketako konzientziatzino kanpainea.

ARTEA

19:00etan, *Anarirekin berbetan*. Alkarrizketa musiko-literarioa, liburuaren aurkezpena eta akustikoa Herriko Bentan.

BEDIA

16:30etik 19:30era, liburutegia zabalik, astelehenetik barikura.

Ikasgelaren zerbitzua Bete-beteka ikasgelan. Astelehenetik barikura 09:00etatik 16:00etara eta 19:30etik 21:30era; zapatu eta domeketan, 09:00etatik 21:00etara. Izena emoteko eta erreserbea egiteko 16:30etik 19:30era liburutegian. Txartela (giltza) personalizaua egongo da eta liburutegian jasoko da.

16:30etik 19:30era, bagilaren 15era arte, sanjuanetan playback-ean parte hartzeako eta txosnan laguntzeko izen-emotea liburutegian.

18:00etatik 18:30era, hilaren 10ean egingo dan Bilboko itsasadarrera jubiladuen txangoan parte hartzeako izen-emotea eskoletan.

DIMA

16:30etik 19:30era, astelehenetik eguenera, liburutegia zabalik.

IGORRE

Bagilaren 19ra arte, *Herri argia - Baserriko lanetik, gaurko kirolaria* erakusketea Kultur Etxean.

09:30etik 13:30era eta 16:00etatik 20:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik. Mailegu zerbitzua, arrastiz astelehenetik eguenera eta goizez barikuetan eta umeen jai eta opor sasoiari.

08:00etatik 22:00etara ikasgela zabalik. Aurretik Kultur Etxera deitu behar da zitea eskatzeko 94 673 62 51 telefonoan.

17:30ean, VI. Arratiako Antzerki Topaketak. Lemoako eskoleak *Egun bat museoan*; Igorreko eskoleak *Edabe magikoa* Kultur Etxean.

18:00etatik 21:00etara, *Daniaina. Gaskoniako aireak* jantza tailerra eta jantzaldia. Doban da eta ez da izena emon behar. Pikoteoa etxetik eroan. Eingo eskoleak antolatuta. Beheko Plazan.

LEMOA

08:00etatik 21:00etara, astelehenetik domekara Kotxepineko ikasgela zabalik.

16:30etik 19:30era, liburutegia zabalik astelehenetik barikura Kultur Etxean.

Hilaren 9ra arte, aurkeztu daitekez udaletxean jaietako Kartel Lehiaketarako lanak.

ZEANURI

2011 eta 2014 bitartean jaiotakoak, bagilaren 21etik 23ra Gorbeiako udalekuetarako eta 2007 eta 2010 bitartean jaiotakoak garagarriaren 10etik

14rako udalekuetarako izen-emotea zabalik bagilaren 1era arte. Izena emoterakoan pagau behar da; lehenengo txandakoek 100 euro; bigarrenekoek 200 euro.

Batxiler eta unibersidadeko ikasleentzat goizeko 08:00retatik gaueko 21:00ak arte zabalik egunero. DBHko ikasleentzat, astelehenetik eguenera 17:00etatik 19:00etara.

ZEBERIO

Bagilaren 16ra arte, udalekuetarako izena emoteko epea zabalik.

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

BAGILAK 2  
AREATZA

Areatza Musik & Beer. 19:00etatik aurrera, Edgar Blues Trio, La Perra Blanco, Henrik Freischlager eta Eric Steckel-en kontzertuak.

DIMA

Dimesten Eguna. 17:00etan, arpegiak pintau eta sarea egin; 18:30ean, pelotakadak; 20:00etan, konzentrazinoa plazan; 20:30ean, jantza kolektiboa plazan; 21:00etan, kantu poteoa eta umeentzako afari-meriendea frontoi txikian; 22:30ean, bideoa: Pantailak Euskaraz, ostean, argazki kolektiboa; 23:00etan, Very Txarrak taldearen kontzertua.

IGORRE

17:30ean, Igorreko Inazio Zubizarreta eskolako LH5eko ikasleek *Arratiako tranbia eta Eulalia Abaitua* pastoralara Lasarte Aretoan. Gidoia: Arkaitz Estiballes Ormaetxea.

Gezalako jaiak. 21:30ean, *Nora* filmaren emonaldia plazan. Ikusleen artean txokolatea eta bizkotxoak bananduko dira.

LEMOA

17:30ean, gure seme-alaben eskubideak gurasoen konpromisoa zaintza proiektuko Saioa Hernandezek gidatutako *Gurasoak eta seme-alaben arteko harreman emozionalak* saio teoriko-praktikoa Kotxepinen.

BAGILAK 3  
AREATZA

Gorbeia Parke Naturalak antolatuta, soinu

paisaia: jarduera independiente bi, baten edo bietan parte hartzeako aukerea dago. Lehenengoan txorien zentsu bat egin egunsentian; gero, goizean ibilaldi bat txorien kantuen bitartez paisaia desbardinak irudikatzeko. Zailtasuna: bajua. Izena emon, *gorbeia.parke.naturala@gorbeia.eus* helbidean edo 94 673 92 79 telefonoan.

Areatza Musik & Beer jaialdia. 12:00etatik 18:00etara Kallartean, Bob Wayne & The Outlaw Carnies, James Room eta Basement Saints. Jatekoa eta edatekoa: Dando la brasa, Mafaldo, Kaitxo txokolateak, Crisla Sweets, Ama Txo gaztaiak eta TXP Txomin Parrilla. 18:00etatik aurrera: Los Retros, Atraco, Komodor, Basement Saints eta Koritniren kontzertuak. Ostean dj Alai.

ARRATIA

18:00etan, Bizikleteraren Nazinoarteko Eguna. Zeanuritik Lemoara bizikleta martxea, plazan. Makatzak-ek antolatuta.

DIMA

Dimesten Eguna. 11:00etan, *Landatik hirira joanda etorri* Ugarana eskolako LH5eko ikasleen pastoralara; 12:30ean, lorak landatu Andran parkean; 13:30ean, artoa garandu eta lokotzak batu plazan; 14:30ean, bertso-bazkaria Jon Maia eta Aitor Sarriegigaz frontoi txikian eta 18:00etan, erromeria Kittu taldeagaz plazan.

IGORRE

Gezalako jaiak. 11:30etik 12:00etara, Paella eta Tortilla Lehiaketetarako izen-emotea; 12:00etan, umeentzako tailerrak; 14:00etan, tortillen aurkezpena; 14:30ean, paellen aurkezpena; 14:00etan, Briska eta Mus Txapelketetarako izen-emotea; 16:30ean, Briska eta Mus Txapelketak; 17:00etan, Antxo eta Pantxa pailazoen *Gurekin konektatu* umeentzako ikuskizuna; 19:30ean, erromeria Fan & Go taldeagaz. Ostean parrilladea bertan dagoan jentearentzat.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, sari banaketea Lemoatxa/Gantzabal (383 m).

Euskal Jaia. 13:00etan, poteo musikatua Zornotzako Triki-Piu-Pand taldeagaz jubiladuen tabernan hasita; 15:00etan,

herri bazkaria udaletxeko plazan. Eguraldi txarra egiten badau, eskolako aterpean; bazkaloste musikatua NKT Nafarroa Kanta Taldeagaz eta 19:30ean, Elkartrukeko Gazteen afari salmentea udaletxeko plazan.

ZEBERIO

09:30ean, Zeberio Ezagutuz, ondare kulturala eta naturala ezetuteko ibilbidea: Ermitabarri (San Antonio)-Argiñao (San Adrian)-Barañao (San Antonio)-Etxaso (San Esteban). 4 orduko ibilbidea. Umeentzat zugatzak identifiketako ekintza bat egongo da. Ermitabarrin.

Untzueta Nafar Gaztelura igoerea. 11:30ean, hamaiketako herrikoia; 12:00etan, aurreksua eta ekitaldia.

BAGILAK 4  
LEMOA

Ganzabal Mendi Taldearen urtekerea Peñalba de Lérdano (1.244 m)-Tres Dedos (1.172 m)-Castrejon (1.018 m).

BAGILAK 5  
BEDIA

17:30ean, Txiki Txoko; 18:30ean, Udalekuak eta 19:30ean, Uda Gaztearako batzarrak liburutegian.

IGORRE

17:30ean, VI. Arratiako Antzerki Topaketak. Igorreko eskoleak *Gaixo tranpatiak*; Lemoako eskoleak *7 herrialdetako argi bola* Kultur Etxean.

BAGILAK 7  
IGORRE

17:30ean, VI. Arratiako Antzerki Topaketak. Lemoako eskoleak *Chic Hotela*; Arteako eskoleak *Txipiroi irla* eta Igorreko eskoleak *Enperadorearen jantzi berria* Kultur Etxean.

LEMOA

50 tontor baietz! erronkan parte hartzeako izen-emotea Ganzabal Mendi Taldearen lokalean edo 675 701 359 telefonoan, 19:30etik 21:00etara.

BAGILAK 8  
ARTEA

19:00etan, June Baonzaren *Ama eta asunak* erakusketea eta dokumental emonaldia Kultur Etxean.

IGORRE

17:30ean, VI. Arratiako Antzerki Topaketak. Areatzako eskoleak *Oz mago harriargia*; Arteako eskoleak *Kantauriko piratak* Kultur Etxean.

ZEANURI

18:30ean, elikadura osasuntsuaren gaineko berbaldia. Jubilauen alkarteak antolatuta.

BAGILAK 9  
ARTEA

19:00etan, Irakurleen Txokoan, Unai Iturriaga, Harkaitz Cano eta Joseba Larretxeren *Ni ez naiz Mikel Laboa* liburuaren gaineko saioa Kultur Etxean.

IGORRE

Igorreko jaiak bagilaren 18ra arte. Ikusi egitaraua erdiko orrialdeetan.

LEMOA

20:00etan, Nhil-en *Bizi bagina bezala* diskoaren aurkezpen kontzertua Kotxepinen.

BAGILAK 10  
BEDIA

Eleizalde, Bediako Jubilatu eta Pentsionisten alkarteak eratutako urtekerea Bilboko itsasadarrera.

IGORRE

20:00etan, Agrupacion Coral Atxaspe, eta Luis Iruarizaga Abesbatza eta Eingo Eskolaren kontzertua Lasarte Aretoan.

12:30ean, Gurutze Gorriak antolatutako beteranoen futbol partidu solidarioa Arratia vs SD Amorebieta Juan Mari Aizarnaren omenez Urbietta futbol zelaian.

UBIDE

18:30ean, *Ubide 1936-1945. Giza Eskubideen zapalketa eta errepresioa Gerra Zibilean eta Lehen Frankismoan* liburuaren aurkezpena Patxi Juaristi idazleagaz eta Aranzadiko Javier Burcesegaz. Ostean, kopautxoa Herriko Tabernan.

ZEANURI

Txistularien LV. urteurrena egunean zehar.

BAGILAK 11  
AREATZA

Gorbeia Parke Naturalak antolatuta, mendi urtekerea, Itzina ingurune karstikoa zeharkatuz. Pagomakurre-Atxulo-Supelegor-Lexardi-Kargaleku. Zailtasuna: ertain-altua. Izena emon, *gorbeia.parke.naturala@gorbeia.eus* helbidean edo 94 673 92 79 telefonoan.

BAGILAK 13  
BEDIA

Arratia Garbia kanpainea. 10:30etik 13:30era eta 16:00etatik 19:00etara, informazino puntua eta materialen banaketea; 18:00etan, hondakinen karakterizazinoa plazan.

LEMOA

10:30etik 12:30era, hilaren 15era arte, Lemoatx Jubilatu eta Pentsiodunen alkarteak antolatuta, sakeleko telefonoari probetxua aterateko oinarritzko ikastaroa jubiladuen alkarteko lokalean.

BAGILAK 14  
DIMA

Arratia Garbia kanpainea. 10:30etik 13:30era eta 16:00etatik 19:00etara, informazino puntua eta materialen banaketea; 18:00etan, hondakinen karakterizazinoa plazan.

LEMOA

18:00etan, Amaia Elizagoien eta Irati Celestinoren *San Juan gaua* umeentzako ipuin kontaketa musikatua Kotxepinen.

50 tontor baietz! erronkan parte hartzeako izen-emotea Ganzabal Mendi Taldearen lokalean edo 675 701 359 telefonoan, 19:30etik 21:00etara.

BAGILAK 15  
ARANTZAZU

Arratia Garbia kanpainea. 16:00etatik 19:00etara, informazino puntua eta materialen banaketea; 18:00etan, hondakinen karakterizazinoa plazan.



Zeanuri artistez beteko da bagilaren 11n

Zeanuriko Aire Zabaleko V. Margolan Lehiaketea izango da bagilaren 11n. Zeanuriko Kultur Batzordeak Udalgaz batera antolatu dau lehiaketea. Partaideek, goiza izango dabe Zeanuri edo-eta bere inguruaren gaineko koadro bat pintetako. Izan be, 09:00etatik 09:30era zigitatu eta arrastiko 14:00etatik 14:30era arte aurkeztu beharko dabez lanak sinatu barik Kultur Etxean. Sari banaketea 15:00etan izango da. Parte hartzaileentzako oinarri guztiak Udalaren webgunean dagoz.

Margolanen nahitaezko gaia Zeanuri eta bere ingurua izango da. Euskarria laua eta zuria edo kolore bakarrekoa izan behar da (mihi-sea, ohola...). Gehienez 100 x 100 zentimetrokoa. Teknikea egileak berak ebartziko dau.

Sari bi egongo dira: 1.000 euroko saria irabazlearentzat eta 300 euroko publikoaren saria. Epaimahaia Zeanuriko Udalak izentauko dau eta ebazpena apelaezina izango da.





# KOMIKIA

Iman Olatu



## IRAGARKI LABURRAK

### DANERIK

#### GARAJEA ALOKATZEN DOT

Garajea alokatzen da Igorreko Elexalde kaleko 56 zenbakian. Eleiza aurrean. Telefonoa: 94 631 60 22.

**MOBIKORTASUN MURRIZTUA**

**DABENENTZAT MOTORRA SALGAI**

Mobikortasun murriztua edo desgaitasuna dabenentzako motorra. Libercar Urban Scooter elektrikoa. Bateria barria 2022an ipinita. Ez da erabiltzen 2022ko bagilatik. Interesdunek deitu 676 936 010 telefonora.

#### LONJEA ALOKATZEN DOT

Igorreko Olabarri auzoan dagoan lonja bat alokatzen dot kontratupean. Informazioa, 647 239 449 telefonora.

#### BULEGOA ALOKATZEN DOT

Arrigorriagako erdigunean, horniduta eta lan egiteko prest dagoan bulegoa (45 m²) alokairuan. Kudeaketa, aholkularitza, aseguruak, eta abarrentzako aproposa. Prezioa: 450 euro. Telefonoa 665 709 651.

#### SALTZEAN DOT

Dimyos markako bizikleta eliptikoa eta animaliek alde ez egiteko hezi elektriko ikusezina, transmisorea eta lepokoa saltzean dodaz. Interesdunek deitu: 661 273 192 telefonora.

### BIZIKLETA BILA

Arratia DBH 3ko ikasle batzuek garraio ekologikoa bultzatzeko bigarren eskuko bizikleten bilketea prestatuko dabe Igorren. Bizikleta horreek konpondu eta berrerabiliko ditue osasun fisikoko asignatura barrian. Bizikletak Igorreko institutura eroan 08:15etik 14:15era astelehenetik barikura.

### LANA

#### PSIKOLOGIA ZENTROA ESKUALDATZEN DA

Igorreko San Juan auzunean, baimen guztiakaz eta jardun betean. Interesdunek deitu 600 634 272 (Sagrario) telefonora.

#### TABERNARI BILA

Axular Herriko Taberna lan egiteko tabernari euskaldun bat behar da. Interesdunek taberna galdetu edo [axularke@gmail.com](mailto:axularke@gmail.com) helbidera idatzi.

**Zeozter saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidera. Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa



Zenbaki honetako saridunak:

**1** Lemoako Kotxepin Kultur Etxeak emondako bina sarrera Nhil-en *Bizi bagina bezala* diskoaren aurkezpenerako.

Ainara Olazabalaga (Bedia)  
Ainhoa Zuluaga (Igorre)



**2** Kristonak taldeak emondako materiala.

Montse Bustinza (Areatza)  
Miren Garbiñe Etxebarria (Lemoa)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 21 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | [www.begitu.eus](http://www.begitu.eus) | [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus)

**Dia %**  
**PEDRO**  
**AUTOZERBITZU**  
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre  
Tel. 94 631 15 26

**KIRRU**  
ILEAPAINDEGIA  
ROSANA eta ROBER  
-  
SABINO ARANA 38  
IGORRE  
-  
Tlf. 94 631 92 00

**ASEGURUAK:** **ZUZENBIDE**  
**AUTOAK** **ETXEBIZITZAK** **AHOLKULARITZA:** **LAN ZUZENBIDEA** **DENDAK**  
**ZERGAK** **KONTABILITATEA** **ISTRIPUAK**  
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96  
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

**BIXER**  
**TABERNA**  
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

**Jose Luis**  
**Corbacho**  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3. 3a Tlf. 94-673-70-87  
Igorre 48140 Bizkaia Tlf. 609-79-40-54

**begitu**  
**eus**



# Entzumen gehiago gutxiagogatik

2 audifono erosterakoan

# %50

## Beherapena 2. audifonoan

Konektibitatedun modeloetan soilik



Olaetxe  
OPTIKA ZENTRUA



Ekainaren 30erarte

>eskatu zita

946 577 003

# begitu

20  
urte

## BAIETZ 30 LAGUN BARRI EGIN!

### 2023AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko.

Horretarako **2023an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?



\*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

**Zertu Kultur Elkarte** Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: \_\_\_\_\_

Helbidea: \_\_\_\_\_

Telefonoa: \_\_\_\_\_ Helbide elektronikoa: \_\_\_\_\_

Kontu korrontearen zenbakia: ES \_\_\_\_\_

Aukeratu urteko kuotea: ☐ 35€ ☐ 55€ ☐ 75€

begitu.eus



Edo e-mailez, bialdu datuok: [begitu@begitu.eus](mailto:begitu@begitu.eus) helbidera.